

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa. Onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzea

Azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak, Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoak (zati batean, azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatu zuen), Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeen tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa ezartzen du. Arabako Lurralde Historikokoaren 1998ko Aurrekontua Betearazteko abenduaren 19ko 33/1997 Foru Arauaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko zentroak eta zerbitzuak erabiltzeagatik 1998ko ekitaldian ordaindu beharreko prezio publikoen tarifak finkatu ziren. Geroztik, urtez urte, Diputatuen Kontseiluak prezio publiko horiek aplikatzeko araudia onartu du. Araudi horietan ia modu berean ezarri izan dira urtero Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei aurrekontu ekitaldi bakoitzean aplikatu beharreko hobariak eta salbuespenak, bai eta horiek kudeatzeko eta zehazteko arauak ere.

2013an, prezio publikoei buruzko beste araudi bat onartu zen, bete hainbat helburu betetzeko.

2016an, berriz, Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 26ko 4/2016 Foru Dekretua dela bide, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eskaintako zerbitzuei prestazio ekonomikoei heltzeko erregulazioaren oinarritzko arauak prestatzeko prozedura amaitutakoan, Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 29ko 3/2013 Foru Dekretua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuen tasa eta prezio publikoei buruzkoa (Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 4ko 19/2013 Foru Dekretuak aldatutakoa) aplikatu zeneko lehenengo bi urteetan hartutako eskarmen-tuan oinarriturik, dekretua berriro moldatu zen aurreko araudiaren inguruko zenbait argibide emateko.

Egun, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoen arauketa berria onartuko da, bertako edukia egokitzeko helburuz, arloko xedapen guztien arteko erabateko koherentzia bermatzeko xedez.

Berrikuntza gisa, ordainketa geroratzeko aukera emango zaie zerbitzuen erabiltzaile batzuei, hala nola desgaitasuna duten pertsoneri eta buruko eritasunen bat duten pertsoneri. Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 26ko 4/2016 Foru Dekretua indarrean egon den artean, adinekoentzako egoitzetako erabiltzaileek baino ezin izan dute ordainketa geroratu. Kasu horretan, ordainketa egin behar duen pertsonak prezio publikoa ordaintzeko behar besteko ahalbide ekonomikorik ez badu, edo, ahalbide hori eduki arren, likidezirik ez badu, edo diru erraz bihurtzen den ondarerik ez badu, prezio publikoaren zati bat geroratu ahal izan du.

Hala, 2016an, ordainketa geroratzeko aukera eskaini zitzaizen adinekoentzako eguneko zentroetako erabiltzaileei. Adinekoentzako egoitzetako erabiltzaileei eta adinekoentzako eguneko zentroetako erabiltzaileei eskaintzen zaien ordainketa geroratzeko aukeren arteko aldea hauxe da: lehen kasuan, aukerak prezio osoari eragiten dio eta gainerako kasuetan hobaridun prezioari ala ez, erabiltzaile moten inguruabarrak aintzat hartuta.

Sasoia zenean, aukera hori eskaintzea beharrezkotzat jo zen, erabiltzaileen likidezia ezaren aurrean, hobaridun kuota erabiltzaileen ahalbide ekonomikoaren arabera kalkulatzeko delako eta, horretan, diru sarrerekin batera, ondarea ere badagoelako, baina azkena, batzuetan, ezin da

erraz diru bihurtu. Ordainketa geroratzen bada, erabiltzaileak zerbitzua erabiltzen jarraitu ahal izango du, nahiz eta zerbitzu osoa ez ordaindu. Bestalde, zerbitzua amaitzen denean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zor geroratuaren ordainketa har lezake, erabiltzaileak horretarako ahalbide ekonomikoa baleuka.

Gaur egun, gure iritziz, behar-beharrezkoa da aukera hori zerbitzuen beste erabiltzaile batzuei ere eskaintzea, hala nola desgaitasuna duten erabiltzaileei eta buruko gaixotasunen bat duten pertsoneri, baldin eta kuota –hobariduna zein ez-hobariduna– ordaintzeko likidezia nahikorik ez badute, kuota hori norberaren ahalmen ekonomikoaren arabera kalkulaturik.

Azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak prezio eta tasa publikoen alorrean indarrean zegoen araudia aldatu zuen. Arau horrek ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiak du eskumena, zerbitzuak emateagatik erabiltzaileei eskatu beharreko prezioen zenbatekoa zehazteko edo aldatzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuen prezioak barne.

Era berean, beharrezkoa dugu prezioen publikoei buruzko araudi berria urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, ezarritako eskumen esparrura eta gainerako erakundeekin adostutako akordioetara egokitu dadin.

Horregatik, udalaren eskumeneko zerbitzuak izan arren, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Akordioa dela bide, honako erakunde hau ematen ari den zerbitzu publikoen prezioak ezarri dira. Aipaturiko akordioa 2020ko ekainaren 26ra arte luzatu zen, 2018ko abenduaren 21eko 765/2018 Akordioa dela bide eta sinaturiko hitzarmenak direla bide.

2016ko abenduaren 1ean, lankidetzako hitzarmen esparrua sinatu zen Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean, gizarte zerbitzuen arloko eskumenak berrantolatzeke helburuz, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, eta abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, diotenari jarraiki. Arestian esandako hitzarmena 2017ko abenduaren 19an aldatu zen eta 2020ko abenduaren 31ra arteko indarraldia dauka.

Horrek guztiak isla dauka onartu nahi den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoak erregulatzen dituen araudi berrian.

Aurrekoa dela eta, Gizarte Politiken foru diputatuaren eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen foru diputatuaren baterako ekimenez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak horren berri izan duela eta Gobernu Kontseiluak gaur egindako saioan eztabaidatu ondotik,

XEDATZEN DUT

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honek honako helburu hauek dauzka:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen doakotasuna ala ez-doakotasuna zehaztea, hau da, zerbitzuok jasotzeagatik prezio publikoa ordaindu behar den ala ez ezartzea.

b) Prezio publikoen aplikazioa arautzea, eta, zehazki:

– pertsona erabiltzaileek prezio publikoen ordainketan zenbateko parte hartzea izan behar duten ezartzeko irizpideak;

– prezioen sortzapenean, ordainketan eta ordainketaren gerorapen partzialetan aplikatuko diren irizpideak;

– prezio publikoak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalbide ekonomikoa zehazteko irizpideak.

c) Prezio publikoen zenbatekoak ezartzea, bai eta erabiltzaileen ahalbide ekonomikoaren arabera aplikatuko diren hobariak ere.

2. artikulua. Eremua

Foru dekretu hau Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuei aplikatuko zaie, bai berak zuzenean kudeatzen dituen, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bitartez kudeatzen dituen, bai erakunde pribatuekin sinatutako itunen, hitzarmenen edo kontratuen bitartez kudeatzen dituen.

I. KAPITULUA. DOAKO ZERBITZUAK, PREZIO PUBLIKOA DUTEN ZERBITZUAK ETA NORK ORDAINDU BEHAR DUEN

3. artikulua. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak doakoak izan daitezke edo, bestela, prezio publiko baten trukean jasoko dira, hurrenez hurren, 4. eta 5. artikuluetan ezarri den bezala.

4. artikulua. Doako zerbitzuak

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzu hauek doakoak izango dira erabiltzaile guztientzat, haien ahalbide ekonomikoa gorabehera:

a) ZERBITZU OROKORRAK

- Mendekotasuna ebaluatu, diagnostikatu eta horren gaineko aholku emateko zerbitzua
- Desgaitasun ebaluatu, diagnostikatu eta horren gaineko aholku emateko zerbitzua
- Babesgabetasuna ebaluatu, diagnostikatu eta horren gaineko aholku emateko zerbitzua
- Bazterkeria ebaluatu, diagnostikatu eta horren gaineko aholku emateko zerbitzua
- Ezinduentzako tutoretza zerbitzua

b) ADINEKOENTZAKO ETA DESGAITUENTZAKO ZERBITZU ERKIDEAK

• Norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuak: Ingurune fisikoa diseinatzeko aholkularitza zerbitzua

c) DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

• Norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuak: Arreta goiztiarreko zerbitzua

• Okupazio zerbitzua edo zentroa (otorduen zerbitzu osagarriagatik bakarrik ordainduko da prezio publikoa)

d) BURUKO ERITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

• Okupazio zerbitzua edo zentroa

e) HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO ZERBITZUAK

• Adingabeentzako egoitza zentroak (norberaren borondatezko zaintzagatik soilik ordaindu beharko da prezio publikoa, foru dekretu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera):

- Egoitza zentroa
- Harrera etxebizitza
- Emantzipaziorako prestatzeko zentroa
- Emantzipaziorako etxebizitza

- Haurrentzako eguneko zentroak (norberaren borondatezko zaintzagatik soilik ordaindu beharko da prezio publikoa, foru dekretu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera)

- Familia harrera sustatzeko eta horretarako laguntza teknikoa emateko zerbitzua

- Adopzioa sustatzeko eta horretarako laguntza teknikoa emateko zerbitzua

- Babesgabetasun arin eta ertainetan, gizartean, hezkuntzan eta alderdi psikosozialetan esku hartzeko zerbitzua:

- Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko zerbitzua

- Laguntza psikologikoa eta pedagogikoa emateko zerbitzua

- Babesgabetasun larrietan, gizartean, hezkuntzan eta alderdi psikosozialetan esku hartzeko zerbitzua:

- Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko zerbitzua

- Laguntza psikologikoa eta pedagogikoa emateko zerbitzua

f) ETXEAN INDARKERIA JASATEN DUTEN EMAKUMEENTZAKO ETA ARRISKU EGOERAN DAUDEN EMAKUMEENTZAKO ZERBITZUAK

- Etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzako egoitza zentroak, eta emakumeentzako beste egoitza zerbitzu batzuk:

- Berehalako harrera zentroa

- Etxean indarkeria jasan duten emakumeentzako harrera etxebizitza

- Arrisku egoeran dauden emakumeak egonaldi ertainean hartzeko zentroa

- Tratu txarrak edo sexu askatasunaren kontrako egintzak jasan dituzten biktimentzako gizarte eta lege laguntza eta laguntza psikosoziala emateko zerbitzua

- Tratu txarrak eman edo sexu askatasunaren kontrako jokabideak izan dituzten erasotzaileei arreta psikosoziala emateko zerbitzua

- Familiekin gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko eta/edo esku hartze psikosozialeko zerbitzua

g) GIZARTE BAZTERKERIAREN ZERBITZUA

- Kronifikatuta dauden pertsonentzako egoitza zentroa

- Gizarteratzeko egoitza zerbitzua:

- Gizarteratzeko laguntzadun etxebizitza

- Gizarteratzeko egoitza zerbitzua

- Gizarteratzeko beharrezanean erantzuteko zerbitzua edo zentroa

- Gizarteratzeko beharrezanean erantzuteko gaueko harrera zentroa

5. artikulua. Prezio publikoa ordaindu beharreko zerbitzuak

1. Prezio publikoa ordaindu beharko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzu hauengatik:

a) ZERBITZU OROKORRAK

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua

- Egoitza unitate soziosanitarioa

b) ADINEKOENTZAKO ETA DESGAITUENTZAKO ZERBITZU ERKIDEAK

- Norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuak: Laguntza produktuak eskuetaratzeko zerbitzua

c) ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK

- Landa eremuan ostatua hartzeko zerbitzua
- Egoitza zentroak
- Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan
- Eguneko arreta landa eremuan ostatua emateko zerbitzuetan
- Adinekoei eguneko arretako ematen dieten landa eremuko zentroak:
 - Arreta pertsonala emateko zerbitzua
 - Zerbitzu osagarriak:
- Otordu zerbitzua
- Arropa garbitzeko zerbitzua
- Bainu geriatrikoa emateko zerbitzua
- Atsedeen zerbitzuak:
 - Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan
 - Atsedeen zerbitzua landa eremuan ostatua ematen duten zerbitzuetan
 - Atsedeen zerbitzua eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa eskaintzen duten egoitza zerbitzuetan
 - Atsedeen zerbitzua eguneko arretan, landa eremuan ostatua ematen duten zerbitzuetan
 - Atsedeen zerbitzua eguneko arreta eskaintzen duten landa eremuko zentroetan

d) DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

- Bizitza beregainari laguntzeko zerbitzua
- Egoitza zentroa:
 - Egoitza
 - Laguntzadun etxebizitza
- Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa:
 - Adimen urritasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa
 - Garapen urritasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa
- Autonomia pertsonaleko zentroa muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonentzat
- Zerbitzu osagarria okupazio zerbitzuan edo zentroan, eguneko zentroan eta autonomia pertsonaleko zentroan.
 - Otordu zerbitzua
- Atsedeen zerbitzuak:
 - Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan

– Atsedeen zerbitzua eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa eskaintzen duten egoitza zerbitzuetan

– Beste atsedeen zerbitzu batzuk

e) BURUKO ERITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

• Bizitza beregainari laguntzeko zerbitzua

• Egoitza zentroa:

– Egoitza

– Laguntzadun etxebizitza

• Eguneko zentroa

• Atsedeen zerbitzua

– Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan

– Atsedeen zerbitzua eguneko zentroan

– Beste atsedeen zerbitzu batzuk

• Zerbitzu osagarria eguneko zentroan

– Otordu zerbitzua

• Buruko eritasun kronikoa duten pertsona eta/edo senitartekoentzako gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko zerbitzua eta esku hartze psikosozialeko zerbitzua

f) HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO ZERBITZUAK

• Adingabeentzako egoitza zentroak (norberaren borondatezko zaintzagatik soilik ordaindu beharko da prezio publikoa):

– Egoitza zentroa

– Harrera etxebizitza

– Emantzipaziorako prestatzeko zentroa

– Emantzipaziorako etxebizitza

• Haurrentzako eguneko zentroa (norberaren borondatezko zaintzagatik soilik ordaindu beharko da prezio publikoa)

g) ERABILTZAILE EZ IRAUNKORRENTZAKO ZERBITZU OSAGARRIAK

• Erabiltzaile iraunkor ez diren pertsonentzako zerbitzu osagarriak:

– Otordu zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan, adinekoentzako egoitza zentroetan, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan (egoitza eta laguntzadun etxebizitza) eta desgaitasuna duten pertsonentzako okupazio zentroetan.

– Baina geriatrikoaren zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan, adinekoentzako egoitza zentroetan eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan (egoitza eta laguntzadun etxebizitza).

– Arropa garbitzeko zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan, adinekoentzako egoitza zentroetan eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan (egoitza eta laguntzadun etxebizitza).

• Zerbitzu nagusiak modu iraunkorrean erabiltzen dituzten pertsonen senitartekoentzako zerbitzu osagarriak (zerbitzu nagusietan eskaintzen dira zerbitzu osagarriak):

– Otordu zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan, adinekoentzako egoitza zentroetan eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan (egoitza eta laguntzadun etxebizitza).

2. Foru dekretu honen I. eranskinean finkatu dira artikuluko honen 1. lerroaldean zerrendatu diren zerbitzuen prezio publikoak. Prezio horiek eguneratu edo aldatu ezean, aplikagarriak izango dira, 29. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Foru dekretu honetan zerbitzu publiko batzuen prezio publikoak ezarri arren, inor ez da geratuko gizarte zerbitzu horiek jaso gabe, baliabide ekonomikorik ez edukitzeagatik.

6. artikulua. Prezio publikoak ordaindu behar dituzten pertsonak

1. Honako hauek dira foru dekretu honetan araututako prezio publikoak ordaindu behar dituzten pertsonak:

a) 5.1 artikuluan ezarri diren zerbitzuak (guztiak edo bat bakarrik) zuzenean erabiltzen dituzten pertsona fisikoak, baldin eta 1. zenbaki honen b) eta c) letretan aipatutako egoeretan ez badaude.

b) Zerbitzuaren erabiltzailea adingabea baldin bada, beraren guraso ahala daukan pertsonak edo pertsonak edo babeserak edo zaintza daukan pertsonak edo pertsonak ordaindu beharko dute.

c) Erabiltzaile helduek legezko ordezkari edo egitatezko zaintzaile baten bitartez badihardute, foru araudian zerbitzua jasotzeko baldintzen arabera, ordezkari edo zaintzaile horiek ordaindu beharko dituzte GOFEK emandako zerbitzuak. Dena den, kasu horietan, ordainketa zordunduko da ordezkariaren pertsonaren errentan edo ondarean, eta zenbatutako ahalbide ekonomikoa izango da pertsona ordezkariarena.

2. Hala badagokio, aurrekoen ordezkari, ordainketa egin beharko dute doako eskualdaketa, erabiltzaileak 60 urtetik aurrera egindako eskubideen ukoa edo, zerbitzua lehen aldiz eskatu dutenetik, aurreko 10 urteko epean egindako eskubideen ukoa baliatzen dutenek.

Ondasun higieziari dagokienez, ordaintzeko betebeharrak katastroko balioa aintzat hartzen du, eta erreferentziarako balioa hartuko dira eskuragarri dauden azken zerga-datuak, ondasunok dauden autonomia erkidegoan edo lurralde historikoan indarrean dagoen ondasun higiezinak balioesteko araudiari jarraiki. Ordainketa besteren ordezkari egin behar duen pertsonak jasotako ondasun higiezinaren dohaintza bidez eskualdatu baldin bada, ordaintzeko betebeharra azken eskualdaketa atxikitako baliorainokoa izango da, KPI egokiaren arabera eguneratuta.

Gainerako ondasunen dohaintzetan, ordaintzeko betebeharra dohaintza-datan egindako eskualdaketa datxekion baliorainokoa izango da, KPI egokiaren arabera eguneratuta, nahiz eta dohaintza hartzaileak gerora berriro eskualdatu.

Era berean, erabiltzailearen ondare guztia edo horren zati bat bahitu badute abal emaile, hipoteka bermatzaile edo antzekoen legez sinatu duelako hirugarren baten alde, azkenak prezio publikoa ordaindu beharko du aurrekoaren ordezkari. Ordaintzeko betebeharra bahiketa eskriturretan esleitutako baliorainokoa izango da.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILEEK PREZIO PUBLIKOEN ORDAINKETAN ZENBATEKO PARTE HARTZEA IZAN BEHAR DUTEN ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

7. artikulua. Prezio publikoa osorik ordaintzea

1. Foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzuak ordaindu behar dituzten pertsonak prezio publiko egokia osorik ordainduko dute, baldin eta behar besteko ahalbide ekonomikoa badute eta, edonola ere, prezio hori ordaintzeko beharrezko bermeak egitea eskatu ahal izango zaie, foru dekretu honen 15. artikuluan ezarri diren kasuetan eta baldintzetan.

2. 1. zenbakian ezarritakoa betetzeko, foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzuak ordaindu behar dituzten pertsonak behar besteko ahalbide ekonomikoa dutela joko da kasu honetan: ahalbide ekonomikoa, foru dekretu honen III. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera zenbatua, II. eranskinean zehaztutako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa denean, zerbitzu mota kontuan hartuta.

3. Foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzuak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalbide ekonomikoa artikuluko honen 2. zenbakian zehaztutako mugak baino txikiagoa baldin bada, 6.2 artikuluan arabera zerbitzua modu subsidiarioan ordaindu behar duten pertsonen (halakorik balego) eskatuko zaie erabiltzailearen ekarpena osatzeko, prezio publikoa osorik ordaindu arte; edo prezio publikoa osorik ordaintzeko eskatuko zaie, zerbitzua ordaindu behar duen pertsonak, bere ahalbide ekonomikoa dela eta, ekarpenik egin ezin badu, 6.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

8. artikulua. Hobariak

1. 6.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, zerbitzuak ordaindu behar dituzten pertsonen prezio publikoa osorik ordaintzeko behar besteko ahalbide ekonomikoa (foru dekretu honen III. tituluan I. kapituluan ezarritakoaren arabera zenbatua) ez badute, haien ahalbide ekonomikoa II. eranskinean ezarritako mugak baino txikiagoa baita, prezio publiko horien hobariak jaso ahal izango dituzte.

Prezio publikoa ordaindu beharreko zerbitzu guztiei aplikatu ahal zaizkie hobariak (5.1 artikuluan jasotzen dira), ondokoei izan ezik:

- a) Adinekoentzako egoitza zentroak eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuak.
- b) Zerbitzu osagarriak.
- c) Buru eritasuna duten pertsonentzako eta/edo haien senitartekoentzako gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko zerbitzua eta esku hartze psikosozialeko zerbitzua.
- d) Bizitza beregainari laguntzeko zerbitzua.
- e) Laguntza produktuak eskuetartzeko zerbitzua.
- f) Atsedeen zerbitzuak.
- g) Haurrentzako eta familientzako zerbitzuak.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren prezio publikoen hobariak gehikortasun printzipioaren arabera aplikatuko dira, erabiltzailearen ahalbide ekonomikoa kontuan hartuta. Erabiltzaileen ahalbide ekonomikoa foru dekretu honetako III. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera zenbatuko da.

3. Artikulu honetan ezarri diren hobariak foru dekretu honen III. eranskinean finkatu dira eta, I. eranskinean finkatu diren prezio publikoak indarrean baldin badaude, aplikagarriak izango dira. Prezio horiek 29. artikuluan ezarri den moduan eguneratzen edo aldatzen baldin badira, dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.

9. artikulua. Salbuespen partzialak atsedeen zerbitzuetan

1. Atsedeen zerbitzuen esparruan, urtean-urtean ematen diren lehen hamabost egunengatik ez dute prezio publikorik ordaindu beharko honako betekizun hauek betetzen dituzten erabiltzaileek:

- a) Familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoaren hartzailea izatea.
- b) Atsedeen modalitate bakoitzean berariaz ezarritako betekizunak betetzea.
- a) Dena delako ekitaldiaren barruan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erabakia dela bide, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorik emanda ez izatea, atsedeen zerbitzuaren

modalitatean, gutxienez 15 eguneko epean, Araban autonomia sustatzeko eta mendekotasunaren arretari lotutako prestazio ekonomikoak arautzen dituen Foru Dekretuak ezarritakoari jarraiki. Esandako prestazioa epe laburrerako eman bada, ez da prezio publikorik ordaindu beharko guztira 15 eguneko epea betetzeko falta diren zerbitzuko egunengatik.

10. artikulua. Salbuespen partzialak zerbitzuen erabilera dela eta

1. Zerbitzu baten erabilera eteten bada, prezio publikoari ondoko salbuespen partzialak aplikatuko zaizkio:

a) Zeinahi motatako egoitza zentroetako erabiltzaileek landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuen erabiltzaileek, adinekoentzako, desgaitasuna duten pertsonentzako, buruko eritasuna duten pertsonentzako edo adingabeentzako eguneko zentroetako erabiltzaileek, gizarte eta familia harremanak hobeto batera ditzaten, bost eguneko aldietan edo epe luzeagoetan –betiere egun horietan zerbitzua funtzionamenduan badago– zerbitzua erabiltzen ez badute, urtean gehienez ere 45 egunetan, lekua gordetzeko zenbateko gisa, norberari esleitutako prezio publikoaren ehuneko 60 aplikatuko zaie epe horietan. Gizarte eta familia harremanak bateratzearen ziozko kanpoaldiak urtean 45 egunetik gorakoak badira, salbuespen partzialik ez da aplikatuko eta esleitutako prezio publikoa osorik kobratuko da 46. Egunetik aurrera. Artikulu honetako a) atalean ezarritakoa ezin izango da aplikatu asteburuak emateko eguneko zentroei dagokienez.

b) Era berean, okupazio zentroak erabiltzen dituzten pertsonen gizarte eta familia harremanak hobeto batera ditzaten, ondoz ondoko bost edo egun oso gehiagoko aldietan (egun horietan zerbitzua funtzionamenduan badago) zerbitzua erabiltzen ez badute, gehienez ere urtean 45 egunetan, otordu zerbitzu osagarriaren ordainketa etengo da. Gizarteratzea edo familiaratzea dela eta, zerbitzua urtean 45 egunean baino denbora luzeagoan erabili ez bada, 46. egunetik aurrera otordu zerbitzuaren prezio osoa ordaindu beharko da berriro.

c) Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileek edo buruko eritasuna duten pertsonentzako psikologia eta hezkuntza programaren erabiltzaileek aldi baterako erabiltzaileari uzten diotenean, ez da inolako preziorik sortuko etenaldia ondoz ondoko 7 egutegiko eguneko edo handik gorakoa denean. Horretarako, erabiltzaileek zerbitzua jasotzeari utziko diotela idatziz jakinarazi beharko dute, etenaldia hasi baino zazpi egun lehenago gutxienez, larrialdia dela eta ezinezkoa denean izan ezik (behar bezala frogatu behar da). Zerbitzua ondoz ondoko zazpi egun naturalez baino denbora laburragoz erabili ez bada, esleitutako prezio publikoa ordaindu beharko da.

2. Desgaitasuna duen pertsona batek edo buruko eritasuna duen pertsona batek egoitza zerbitzua eta eguneko zerbitzua aldi berean erabili behar baditu, egoitza zerbitzuaren prezioa ordainduko du, hala dagokionean, eta eguneko zentroaren prezioaren ehuneko 50 ordaintzetik salbuetsita egongo da.

3. Desgaitasuna duen pertsona batek edo buruko eritasuna duen pertsona batek egoitza zerbitzua eta okupazio zentroa, eguneko zentroaren zerbitzua edota urritasun fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonen autonomia sustatzeko zentro baten zerbitzua aldi berean erabili behar baditu, egoitza zentroaren prezioa ordaindu beharko du, hala dagokionean, eta ez du ordaindu beharko okupazio zentroan, eguneko zentroan edo zerbitzuan edo urritasun fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonen autonomia sustatzeko zentroan otordu zerbitzu osagarria erabiltzegtatik dagokion prezio publikoa.

Gainerako kasuetan, zerbitzuak aldi berean erabiliz gero, ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoan.

4. Ospitaleratzearen zioz, egoitza zerbitzuen eta eguneko arreta zerbitzuen erabiltzaileei ez zaie inolako salbuespen partzialik aplikatuko prezio publikoaren ordainketan, ospitaleratze mota edo modalitatea gorabehera eta, beraz, ez da etengo prezio publikoaren sortzapena. Aurrekoa horrela bada ere, ospitaleratzeak jarraian zazpi egun edo gehiago irauten badu, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa ehuneko 90 izango da, erabiltzailearen ospitaleratze aldiko lehen

egunetik aldi hori amaitu arte, baldin eta ospitaleratzeak Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuak, uztailaren 22koak, 75.1 j) artikuluan gehienez ere ezarri duen etendura epea baino gehiago irauten ez badu (Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuak arautzen ditu mendetasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanaz gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura). Muga hori gainditzen badu, ospitaleratu aurretik erabiltzen zuen zerbitzuaren erabiltzailea izateari utziko dio.

5. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zerbitzuen erabilerari buruz ezarri dituen arauekin bat etorrira, honako kasu hauetan, zerbitzua eten arren, ez da salbuespen partzialik egingo prezio publikoaren ordainketan: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo oinarritzko gizarte zerbitzuak eskatzen duten informazioa edo dokumentazioa emateko betebeharra behar baino beranduago betetzen bada, edo prezio publikoa behin eta berriro ordaintzeke uzten bada.

11. artikulua. Ahalbide ekonomikoaren araberako salbuespenak

Desgaitasuna duten pertsonentzako eta buruko eritasuna duten pertsonentzako egoitza eta laguntzadun etxebizitzetako erabiltzaileek edo foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarritako baldintzetan ordaindu behar dituztenek ez dute ordaindu beharko dagokien prezio publikorik, baldin eta, urtean zenbatuta, haien ahalbide ekonomikoa hurrengo artikulua 1. zenbakian ezarritako erabilera libreko zenbatekoena baino txikiagoa bada.

Era berean, haurrentzako eta familientzako zerbitzuen erabiltzaileek edo foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarritako baldintzetan ordaindu behar dituztenek ez dute ordaindu beharko dagokien prezio publikorik, baldin eta, urtean zenbatuta, haien ahalbide ekonomikoa hurrengo artikulua 1. zenbakian ezarritako erabilera libreko zenbatekoena baino txikiagoa bada.

12. artikulua. Norberak erabiltzeko zenbatekoak

1. Desgaitasuna duten pertsonentzako eta buruko eritasuna duten pertsonentzako egoitzak edo laguntzadun etxebizitzak erabiltzen dituztenek ordaindu beharreko prezioa zehazten deanean, onuradunek erabiltzeko zenbatekoa ezin da inola ere izan honako muga hauek baino txikiagoa:

a) Urteko LGSren ehuneko 30 baino txikiagoa desgaitasuna duten pertsonentzat eta buruko eritasuna duten pertsonentzat, lanik egiten ez duten erabiltzaileak direnean.

b) Urteko LGSren ehuneko 60 baino txikiagoa desgaitasuna duten pertsonentzat eta buruko eritasuna duten pertsonentzat, lan egiten duten erabiltzaileak direnean.

2. Adinekoentzako egoitza zerbitzuetan, landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan eta eguneko zerbitzu edo zentroetan ordaindu beharrekoaren geroratze partzialaren kasuei gagozkiela, prezio publikoa dela eta hilean ordaindu beharreko zenbatekoa zehazterakoan, onuradunek erabiltzeko zenbatekoa ezin da inola ere izan honako muga hauek baino txikiagoa:

a) Urteko LGSren ehuneko 20 baino txikiagoa, adinekoentzako egoitza zentroetako erabiltzaileei dagokienez.

b) Urteko LGSren ehuneko 30 baino txikiagoa, landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuaren erabiltzaileei dagokienez.

c) Urteko LGSren ehuneko 50 baino txikiagoa, adinekoentzako eguneko zerbitzuaren edo zentroetako erabiltzaileei dagokienez.

3. Arreta soziosanitariorako egoitza unitatearen erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoa zehazterakoan, erabiltzailearen erabilera libreko zenbatekoa ezin da inola ere izan lanbide arteko gutxieneko urteko soldataren ehuneko 20 baino txikiagoa.

4. Artikulu honetan jaso diren erabilera libreko zenbatekoak bermatutzat joko dira, baldin eta, urtean behar besteko errentarik ez egon arren, ondare konputagarriaren balioa honako zenbateko hauek baino handiagoa bada:

a) Diru erraz bihur daitezkeen ondasunetan, 3.000 euroko zenbatekoa, adinekoentzako egoitza zentroi eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuei dagokienez.

b) Diru erraz bihur daitezkeen ondasunetan, 15.000 euroko zenbatekoa, adinekoentzako egoitza zentroi eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuei lotutako eguneko zerbitzu eta zentroi dagokienez, eguneko laguntza zerbitzua eskaintzen duten landa eremuko zentroetako eguneko zerbitzua eta asteburuak emateko eguneko zentroa eskaintzen duten eguneko zentroak izan ezik.

c) Diru erraz bihur daitezkeen ondasunetan, 20.000 euroko zenbatekoa, arreta soziosanitarioko egoitza unitateei eta desgaitasuna duten pertsonentzako eta buruko eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuei dagokienez.

5. Artikulu honen aurreko idatz zatietan jaso ez diren zerbitzuei buruz, norberak erabiltzeko zenbatekoak bermatuko dira zerbitzu bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko erabili den formularen bitartez (hobariak foru dekretu honen III. eranskinean ezarri dira).

II. TITULUA. PREZIO PUBLIKOEN SORTZAPENA, ORDAINKETA ETA ORDAINKETAREN GERORAPEN PARTZIALA

I. KAPITULUA. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

13. artikulua. Sortzapena

Araudi honetan arautu diren prezio publikoak ordaintzeko betebeharra sortuko da 5.1 artikuluan zehaztu diren zerbitzuetako bat eraginkortasunez hasten den egunean, eta egun horretatik zerbitzua erabiltzen behin betiko amaitzen den unera iraugo du betebeharrak.

14. artikulua. Ordainketa

1. Zerbitzu batengatik ezarritako prezio publikoa (zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa zein salbuespen partziala daukana) ordainagiria kobratzeko aurkezten denean ordainduko da. Kobrantza banku batean helbideratuko da.

2. Erabiltzaileak edo, hala dagokionean, horren orde ordainketa egin behar duenak, kuota egokia ordaintzeko ahalbide ekonomiko nahikorik ez daukanean, 6.2 artikulua ezartzen dituen jarraiki, ordainketa era subsidiarioan egin beharreko pertsonak badira, 7.3 artikulua ezarritako baldintzak aintzat hartuko dira.

3. Ordainketaren gerorapen partziala balia daitekeen zerbitzuei gagozkiela, ordainketa egin behar duen pertsonak gerorapena eskatzen badu eta aurreko lerroaldean azaldutako ingurubarrak gertatzen ez badira, honela jokatu da:

a) Hilero ordaindu beharreko prezio publikoaren zatia ordainagiria kobratzeko aurkezten denean ordainduko da. Kobrantza banku batean helbideratuko da.

b) Gainerako zatia eta sortutako interesei dagokien zenbatekoa dena delako zerbitzua eteten denean ordainduko dira, halakoetan izan ezik:

— Pertsonak zerbitzua erabiltzeari uzten badio, baina ordainketa geroratua izan dezakeen beste zerbitzu bat egin hasten bada, eta ordainketa geroratua eskatzen badu. Kasu horretan, lehen zerbitzuan geroratutako zorra hurrengo zerbitzu horretan metatutako zorrari gehituko zaio, foru dekretu honetako 31. artikulua 4. c) letran ezarritako moduan.

— Erabiltzailearen ahalbide ekonomikoa aldatu duela jakin duelako, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gertaera horren aurretik edo ondotik eskatzen badu eta, edonola ere, 18.4 artikuluan ezarritako kasuan.

15. artikulua. Ordaintzeko konpromisoa eta bermeak osatzea

1. Ordainketaren zati bat geroratzea onartzen ez duten zerbitzuetan, dagokion ebazpenaren bitartez zerbitzua esleitu, eta zerbitzua bera erabiltzen bada, egintzat joko da ordaintzeko konpromisoa. Beraz, halaxe denean, ez da beharrezkoa izango ordaintzeko konpromisoa berariaz adierazteko formulariorik betetzea.

2. Ordainketaren zati bat geroratzea onartzen duten zerbitzuetan, gerorapen hori eskatzen ez bada, diru sarrera egin baino gutxienez zazpi egun baliodun lehenago aurkeztu beharko da ordaintzeko konpromisoa. Horretarako, foru dekretu honen IV. eranskinean jaso diren formularioak bete beharko dira. Honako hauek dira formulariook:

a) 035 eredia, ordaintzeko konpromisoa eskatzaileak berak aurkezten badu;

b) 036 eredia, ordaintzeko konpromisoa eskatzailearen legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak aurkezten badu;

c) 037 eredia, ordaintzeko konpromisoa modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaile batek onartzen duenean;

d) 038 eredia, ordaintzera behartuta ez dagoen hirugarren batek ordaintzeko konpromisoa borondatez onartzen duenean.

3. Ordainketaren zati bat geroratzea onartzen duten zerbitzuetan, gerorapen hori eskatu nahi bada, zorra aitortzeko dokumentuan txertatuko da ordaintzeko konpromisoa. Dokumentu mota hori foru dekretu honen 18. artikuluan araututa dago. Kasua zein den, dagokion dokumentua bete beharko da:

a) 041 eredia, eskatzaileak berak aurkezten badu; edo 042 eredia, eskatzailearen legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak aurkezten badu;

b) Hala dagokionean, 043 eredia, modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaileak zorra aitortzen badu.

4. Ordainketaren zati bat geroratzea onartzen duten zerbitzuetan, geroratzea aukeratu zein ez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak beharrezko deritzen bermeak eskatu ahal izango dizkie pertsoneri, baldin eta pertsona horien errentak, hileko zenbaketan, prezio publikoa (eskatu daitekeena) bezain handiak edo handiagoak ez badira.

5. Aurreko lerroaldean ezarritako kasuetan, Zuzenbidean onartzen den edozein modutan eskatu ahal izango dira bermeok, aitortu den zorra edo sor daitekeena ordainduko dela bermatzeko. Horrez gain, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egoki eta aski deritzon ordainketa bermatzeko edozein formula adostu ahal izango du. Berme mota berariaz adierazi behar da foru dekretu honen IV. eranskinean jasotako ereduetan. Eredua kasuaren arabera aukeratu beharko da:

a) Gerorapena aukeratzen ez bada, modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaileak ordaintzeko konpromisoa onartzen badu, berme mota 037 ereduan aurkeztu beharko du; ordaintzera behartuta ez dagoen hirugarren batek bere borondatez onartzen badu ordaintzeko konpromisoa, 038 eredia bete beharko du.

b) Gerorapena eskatzea aukeratzen bada, eskatzaileak berak aurkezten badu, 041 ereduan (bertan zor aitortpena jasota dago) adierazi beharko du berme mota. Eskatzailearen legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak aurkezten badu, 042 ereduan. Modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaileak zorra aitortu eta bermea ematen badu, 043 dokumentuan adierazi beharko du.

6. Artikulu honen 5. b) letran ezarritako kasuetan, bermea ondare higiezinez osatuta baldin badago, zorra aitortzeko agirian adierazi beharreko berme motaren azalpenean ondare hori identifikatzeko datu guztiak adierazi beharko dira, erregistroko inskripzioan jasota dauden bezala, aipatu den letran ezarritakoaren arabera. Kasu horietan, Jabetza Erregistroan zorra erregistratzea eta dagokion notario eskritura egitea eskatuko dira.

7. Bermea artikuluan honen 5 eta 6 lerroaldeetan ezarritako baldintzetan eratzetik ez dagoe-nean edo bermea nahikoa ez denean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak honako foru dekretu honen 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki, ondoko agiriak aurkezteko eskatu ahalko dio erabiltzaileari edo ordainketa egiteko obligaziodunari: aurrezki libreten edo eperako aurrezki libreten eta/edo titularra edo titularkidea deneko banku erakunde eta/edo aurrezki kutxen kontu korronteen mugimenduen orriak, sartzeko eskaera egiten den datatik aurreko azken bost urteetakoak. Era berean, edozein diru ondasun adierazi beharko du, zeinahi titulu dela eta, bera jabea edo jabekidea bada.

Foru dekretu honen 6. artikuluan arabera ordaindu behar duen pertsonari Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatu ahal izango dio emandako agiriei buruzko azalpenak eman ditzala, artikuluan honetan ezarritakoa betetzeko.

II. KAPITULUA. ORDAINKETAREN GERORAPEN PARTZIALA ETA ZORRAREN AITORPENA

16. artikulua. Ordaintzeko gerorapen partzialaren aplikazioa

1. 6.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalbide ekonomikoa ez bada nahikoa prezio publikoa foru dekretu honen II. eranskinen 1. eta 2. zenbakietan ezarritako baldintzetan ordaintzeko, edo, behar bezalako ahalbide ekonomikoa izan arren, II. eranskinaren 3. zenbakian ezarritako baldintzetan, likideziazirik edo diru erraz bihurtzen den ondarerik ez badu, pertsona horrek prezio publikoaren ordainketaren zati bat geroratu ahal izango du, baldin eta alde aurretik berariaz eskatzen badu (bere borondatez edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatuta). Erabiltzaileak berak eskaera zuzenean aurkezten badu, foru dekretu honen IV. eranskinaren 039 eredu bate eta aurkeztu beharko du; legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak aurkezten badu, eranskin bereko 040 eredu bate eta aurkeztu beharko du. Eskubideak ondorioak sortuko ditu eskaeraren egunetik aurrera; eta, eskaera sarrera edo zerbitzuan zein zentroan hasi baino lehen egiten bada, sarrera edo hasiera egunetik sortuko ditu.

2. Honako hauek dira ordainketaren zati bat geroratzea onartzen duten zerbitzuak:

a) Adinekoentzako egoitza zentroak eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuak.

b) Egoitza zentroetan eskaintzen diren adinekoentzako zerbitzu eta eguneko zentroak eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuak, eguneko arreta eskaintzen duten landa eremuko eguneko zerbitzua eta asteburuko egonaldiak emateko eguneko zentroaren modalitateko eguneko zentroa izan ezik, hobaridun kuota ordaintzeko likideziazirik ez dutenean, norberaren ahalbide ekonomikoaren arabera kalkulatuta, diru erraz bihur daitekeen ondarerik ez dutelako.

c) Desgaitasuna duten pertsonentzako eta buruko eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuak, hobaridun kuota ordaintzeko likideziazirik ez dutenean, norberaren ahalbide ekonomikoaren arabera kalkulatuta, diru erraz bihur daitekeen ondarerik ez dutelako.

Lerroalde honen a), b) eta c) letretan jasotako ordainketaren zati bat geroratzeko aukera ez da aplikagarria izango zerbitzu eta zentro horietako atsedeen zerbitzuetan.

3. Honako hauek dira ordainketa publikoaren zati baten gerorapena (artikulu honen 1. eta 2. lerroaldeetan azalduta) ezartzeko irizpideak:

a) Honako artikuluan honen 2 a) ataletan ageri diren adinekoentzako egoitza zentroi eta landa eremuko adinekoentzako osatu zerbitzuei dagokienez, ordainketaren gerorapen partziala aplikatuko da osoko prezio publikoaren eta honako foru dekretu honen 17. artikuluan a) eta b) ataletan, hurrenez hurren, ezarritako kalkulutik ateratzen den zenbatekoaren arteko kenduraren gainean.

b) Artikulu honetako 2. b) atalean ageri diren adinekoentzako eguneko zentroi eta egoitza zentroetan eguneko arreta emateko zerbitzuei eta landa eremuko adinekoentzako ostatu eremuei dagokienez, ordainketaren gerorapen partziala aplikatuko da ahalbide ekonomikoaren

arabera kalkulatu den prezio hobaridunaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Ekonomia arloak erabiltzailearen urteko likideziaren arabera zehaztu duen hilean ordaintzeko zenbatekoaren arteko kenduraren gainean. Zenbateko biek dekretu honen III. eranskinean (Hobariak) jasotakoarekin bat etorri behar dute (eranskin horretan erabilera libreko zenbatekoak bermatzen dira).

c) Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuei eta buruko eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuei gagozkiela, ordainketaren gerorapen partziala aplikatuko da ordainketaren gerorapen partziala aplikatuko da ahalbide ekonomikoaren arabera kalkulatu den prezio hobaridunaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Ekonomia arloak erabiltzailearen urteko likideziaren arabera zehaztu duen hilean ordaintzeko zenbatekoaren arteko kenduraren gainean. Zenbateko biek dekretu honen III. eranskinean (Hobariak) jasotakoarekin bat etorri behar dute (eranskin horretan erabilera libreko zenbatekoak bermatzen dira).

4. Prezio publikoaren ordainketaren gerorapen partziala ezin izango zaie aplikatu hobaria jaso dezaketen eta honako foru dekretu honen 8. artikuluan jasotako zerbitzuei, honako artikulua honen 2.b) eta 2.c) lerroaldeetan ezarritakoei izan ezik.

5. Prezio publikoaren zati baten gerorapenak ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du.

6. Artikulu honetan azaldu den prezio publikoaren zati baten gerorapena aplikatzeko, honako hauek aurkeztu beharko ditu gizarte zerbitzuen erabiltzaileak edo haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak: artikulua honen 1. lerroaldean aipatu den eskaerarekin batera, familia unitatearen urteko ahalbide ekonomikoari buruzko dokumentazio eguneratua, foru dekretu honen 25. artikuluan zehaztu diren baldintzetan.

17. artikulua. Gerorapena aplikatzeko modalitateak eta zenbatekoak

Zerbitzu mota zein den, prezio publikoaren zati bat geroratzeko modalitateak honako hauek dira:

a) Honako foru dekretu honen 16.2 a) artikuluan jasotzen diren adinekoentzako egoitza zentroei dagokienez, zerbitzu horien erabiltzaileei prezio publikoaren ordainketa geroratzeko eskubidea aitortzen zaienean, erabiltzaileek ondokoak egin beharko dituzte:

– Hileko ordainketa partzial gisa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Ekonomia Arloak urtean zenbatutako likideziaren arabera zehazturiko hilean ordaindu beharreko zenbatekoaren eta 12.2 a) artikulua ezarritako erabilera libreko zenbatekoaren arteko kendura ordaintzea.

Erabiltzaile egoiliarren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, aurreko idatz zatian zehaztu den erabilera libreko zenbatekoa ehuneko 50 handitu beharko da.

– Zorra aitortzea, foru dekretu honen 18. artikuluan ezarri den bezala, hain zuzen ere, aurreko idatz zatian ezarritako hileko zenbatekoak estaltzen ez duen prezio publikoaren zatia, geroratu dena.

– Hala dagokionean, 15. artikuluan ezarritakoa aplikatuz sortzen den bermea eratzea.

b) Honako foru dekretu honen 16.2 a) artikuluan jasotzen diren landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuei dagokienez, zerbitzu horien erabiltzaileei prezio publikoaren ordainketa geroratzeko eskubidea aitortzen zaienean, erabiltzaileek ondokoak egin beharko dituzte:

– Hileko ordainketa partzial gisa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Ekonomia Arloak urtean zenbatutako likideziaren arabera zehazturiko hilean ordaindu beharreko zenbatekoaren eta 12.2 b) artikulua ezarritako erabilera libreko zenbatekoaren arteko kendura ordaintzea.

Erabiltzaile egoiliarraren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, aurreko idatz zatian zehaztu den erabilera libreko zenbatekoa ehuneko 50 handitu beharko da.

– Zorra aitortzea, foru dekretu honen 18. artikuluan ezarri den bezala, hain zuzen ere, aurreko idatz zatian ezarritako hileko zenbatekoak estaltzen ez duen prezio publikoaren zatia, geroratu dena.

– Hala dagokionean, 15. artikuluan ezarritakoa aplikatuz sortzen den bermea eratzea.

c) Honako foru dekretu honen 16.2 b) artikuluan jasotzen diren egoitza zentroetako adinekoentzako eguneko zerbitzuei eta eguneko arretari eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuei dagokienez, zerbitzu horien erabiltzaileei prezio publikoaren ordainketa geroratzeko eskubidea aitortzen zaienean, erabiltzaileek ondokoak egin beharko dituzte:

– Hileko ordainketa partzial gisa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Ekonomia Arloak urtean zenbatutako likideziaren arabera eta 12.2 c) artikulua ezarritako erabilera libreko zenbatekoaren arabera zehazturiko hilean ordaindu beharreko zenbatekoa ordaintzea.

– Zorra aitortzea, foru dekretu honen 18. artikuluan ezarri den bezala, hain zuzen ere, aurreko atalean ezarritako hileko zenbatekoak estaltzen ez duen prezio publiko hobaridunaren zatia, geroratu dena.

– Hala dagokionean, 15. artikuluan ezarritakoa aplikatuz sortzen den bermea eratzea.

d) Honako foru dekretu honen 16.2 c) artikuluan jasotzen diren desgaitasuna duten pertsonentzako eta buru eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuei dagokienez, zerbitzu horien erabiltzaileei prezio publikoaren ordainketa geroratzeko eskubidea aitortzen zaienean, erabiltzaileek ondokoak egin beharko dituzte:

– Hileko ordainketa partzial gisa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Ekonomia Arloak zehazturiko hilean ordaindu beharreko zenbatekoa ordaintzea, urtean zenbatutako likideziaren arabera eta 12.1) artikulua ezarritako erabilera libreko zenbatekoaren arabera kalkulatuta.

– Zorra aitortzea, foru dekretu honen 18. artikuluan ezarri den bezala, hain zuzen ere, aurreko atalean ezarritako hileko zenbatekoak estaltzen ez duen prezio publiko hobaridunaren zatia, geroratu dena.

– Hala dagokionean, 15. artikuluan ezarritakoa aplikatuz sortzen den bermea eratzea.

18. artikulua. Zorra aitortzea

1. Aurreko artikuluetan agertzen diren prezio publikoaren zati baten ordainketa geroratzeko kasuetan, foru dekretu honen 6. artikulua arabera ordaindu behar duten pertsonak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldeko agiri bat sinatu beharko dute, bertan zorra aitortzeko, hau da, esleitutako prezio publikoaren eta benetan ordaindutako kopuruaren arteko kendura. Horretarako, foru dekretu honen IV. eranskineko 041 eredia erabili beharko dute, baldin eta eskatzaileak berak aurkezten badu; 042 eredia, legezko ordezkariak edo egitatezko zainzaileak aurkezten badu; 043 eredia, modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaileak aurkezten badu.

Zorra bermatze aldera, 15.6 artikuluan zehaztu diren baldintzetan Jabetza Erregistroan inskribatu den berme bat eratu bada, eskritura publiko izendatzeko eta erregistroan inskribatzeko gastuak ordainduko ditu ondasun higiezinaren jabeak. Gastu horiek gehitu ahal izango zaizkio gerorapenarengatik metatu den zorrari; eta gastu horiek eta gainerako zorra modu berean tratatuko dira, ondore guztietarako.

Era berean, alde zurretik zordundu diren zenbatekoak ere zorrari gehitu ahal izango zaizkio, eta zorra aitortzeko dokumentuan jasoko dira, 31.4 artikuluan ezarritako baldintzei jarraiki.

2. Ebazpenaren bitartez esleitutako zentroan edo zerbitzuan sartu edo hasi baino lehen egin behar da zorraren aitortpena. Ondorio horietarako, zerbitzuan edo zentroan hasi baino gutxienez zazpi egun lehenago sinatu beharko da zorraren aitortpena. Beharrian soziosanitarioak direla eta, zorraren aitortpena aurretiaz sinatu ezinik ibili diren buruko eritasuna edo desgaitasuna duten pertsonen kasuetan, zorraren aitortpena, gehienez ere, erabiltzaileak baliabidean hasi eta 7 lanegunetara sinatu behar da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zorra Jabetza Erregistroan inskribatzeko eskatu baldin badu, 15.6 artikuluan ezarritako baldintzei jarraituz, berme hori benetan eratu aurretik, hots, Jabetza Erregistroan inskribatu eta notario eskritura egin aurretik, ezin da zerbitzuan sartu edo hasi.

Zentroan edo zerbitzuan sartu edo hasi aurretik ordainketaren zati bat geroratu ez bada eta, zerbitzuan sartu edo hasi ondoren, pertsonaren egoera ekonomikoa nabarmen aldatzen bada, eta ordainketa geroratzea eskatu ahal badu, une horretan egin beharko du zorraren aitortpena.

3. Zorra aitortzeko agiria prezio publikoa ordaindu behar duten pertsonak sinatu behar dute, hots, foru dekretu honen 6. artikuluan aipatzen diren pertsonak. Pertsona horiek agiri horretan zehaztu beharko dituzte jakinarazpenak jasotzeko pertsonen nortasun datuak eta helbidea. Izan ere, foru dekretu honen 19. artikuluan ezarritako baldintzetan, zorraren likidazioa jakinaraziko zaie, erabiltzaileak zerbitzua erabiltzeari uzten badio, edo zorra aitortzea bultzatu zuen egoera aldatzen bada.

4. Zorra aitortzen badute, eta ordaintzeko konpromisoa beraien gain hartzen badute, zorra kitatu arte, ordaintzeko betebeharra duten pertsonak (edo pertsonak) –foru dekretu honen 6. artikuluan zehaztu dira– ezin izango dituzte beren ondasunak besterendu, eta ezin izango diete uko egin ekonomia edo ondare eskubideei, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak alde aurretik berariazko baimena eman ez badie. Betebehar hori betetzen ez badute, ordainketa geroratzeke eskubidea iraungiko da, eta une horretatik aurrera, ordaintzeko dagoen zenbateko osoaren ordainketa egiteko eskatu ahal izango zaie.

5. Eskaera egin ondotik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, informazioa emateko helburuz, zorra aitortpena dakarren agiria emango die ordainketaren betebeharrepekoiei, behar bezala eguneratuta. Hala, agiri horretan, eskaera egiten den egunera arte zordundutako zenbatekoa adieraziko da.

19. artikulua. Saldo zorduna jakinaraztea

1. Ordainketaren zati bat geroratzen bada eta zorra aitortzen bada, erabiltzaileak zerbitzua betiko erabiltzeari uzten dionean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak saldo zorduna ebazpen bidez jakinaraziko dio: zordunari berari, erabiltzailea hiltzeagatik zerbitzuan baja eman ezean; edo, hala dagokionean, ordaintzera behartuta dauden dohaintza hartzaileei edo balizko oinordekoei. Saldo nagusian gehituko dira sortutako interesak eta ordaintzeko edo kobratzeko dauden ordainagiriak (halakorik egonez gero); ondoren, aipatu den ebazpena jaso eta egutegiko 60 egunera kitatu beharko da zorra. Epe hori amaitu ostean ordaindu ez bada, berandutze interesak sortuko dira.

2. Erabiltzaile zordunak zerbitzua erabiltzeari uzten badio beste zerbitzu batean hasteko, eta hurrengo zerbitzuan ere prezio publikoaren ordainketaren zati bat geroratu ahal bada –eta gerorapen hori, foru dekretu honen 18.1 artikulua azken tartean 31.4 artikuluari buruz aipatzen diren baldintzetan antolatzen bada–, lehen zerbitzuko zorra jakinaraziko zaio, bai eta zor bien batuketa, bigarren zerbitzu hori erabiltzeari utzi arte.

20. artikulua. Ondarea atxikitzea

Foru dekretu honen 6. artikuluan ezarritako baldintzen arabera, prezioa ordaindu behar duen pertsonaren ondareko ondasunak atxiki behar badira zorra kobratzeko, honako kasu hauetan etxebizitza ez da exekutatu: etxebizitza berak erabili behar badu, edo foru dekretu

honen 25. artikulua arabera zehaztu den erabiltzailearen familia unitatearen ohiko etxebizitza bakarra bada, edo ordaindu behar duen pertsonaren familia unitatearen ohiko etxebizitza bada (pertsona hori eta zerbitzuaren erabiltzailea pertsona bera ez direnean); eta, edonola ere, hala dagokionean, etxebizitza tratatu edo bahitu ahal izango da.

Artikulu honetan arautu den ondarearen atxikipena ezin izango zaio inola ere aplikatu foru dekretu honen 6.1 c) artikulua arabera ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren ondareari, betiere pertsona hori 6.2 artikuluan ezarritakoaren arabera ere modu subsidiarioan ordaintzera behartuta egon ezean.

III. TITULUA. KUDEAKETA ARAUAK ETA LIKIDAZIOA

21. artikulua. Eskumena

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak dauka araudi honetan finkatutako prezio publikoak kudeatzeko eta likidatzeko eskumena, Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari dagokion eginkizunak eta ahalmenak gorabehera.

I. KAPITULUA. AHALBIDE EKONOMIKOA ZEHAZTEA

22. artikulua. Ahalbide ekonomikoaren osagaiak

1. Erabiltzailearen ahalbide ekonomiko kalkulatzeko, horrek prezio publikoan izan behar duen zenbateko parte hartzea zehazteko helburuz, familia unitatearen errenta eta ondarea balioetsi beharko da, urteko zenbatekoaren arabera, eta ondorio horretarako, honako kapitulu honetan ezarritako balioespen irizpideei jarraiki. Haurrentzako eta familientzako zerbitzuei dagokienez, familia unitatearen zerga oinarria baino ez da aintzat hartuko. Ogasunak zehaztuko du zerga oinarriaren balioa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako, egindako azken aitortpenean agertzen diren datuei erreparaturik.

2. GOFEk ematen duen zerbitzu baten eskatzailearen ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, zerbitzu horretan hasiko dela eta familia unitate berekia eratu behar badu, eskatzailearen sarrerak eta ondarea baino ez dira aintzat hartuko.

3. Ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, honako hauek erabiliko dira:

a) Erabilgarri dauden azken zerga datuak, betiere, datu horiek aldatu dituen geroagoko gertaera garrantzitsu bat izan ezean. Horrelako kasuetan, datu eguneratuenak erabiliko dira.

b) Hiri-ondasun edo landa-ondasunei dagokienez, halakoak katastroko balioaren arabera zenbatuko dira, erabilgarri dauden azken zerga datuak erabiliz, ondasunok daudeneko autonomia erkidegoak edo lurralde historikoak ondasun higiezinak balioesteko berariaz darabilen araudiari men eginda.

c) Hiri-ondasunen dohaintzak edo horien gaineko eskubideei egindako ukoak katastroko balioaren arabera zenbatuko dira, erabilgarri dauden azken zerga datuak erabiliz, ondasunok daudeneko autonomia erkidegoak edo lurralde historikoak ondasun higiezinak balioesteko berariaz darabilen araudiari men eginda. Ondasunak eskualdatu badira, eskualdaketaren balioaren arabera zenbatuko dira, KPI egokiaren heinean eguneratuta.

d) Hiri-ondasun ez direnen dohaintzak edo horien gaineko eskubideei egindako ukoak eskualdaketaren balioaren arabera zenbatuko dira, KPI egokiaren heinean eguneratuta.

23. artikulua. Errenta

1) Aurreko artikuluan ezarritako ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo sarrera konputagarritzat joko dira familia unitateak urtean dauzkan lanaren ziozko etekinak eta eskubiak, ondokoetatik eratortzen badira:

a) Funts publikoetan edo pribatuetan zorduntzeko pentsioak edo prestazio ekonomikoak (jasotzen diren diru sarrera gordinak zenbatuko dira). Horretarako, sailkapen horren barnean hartuko dira pentsioak, sorospenak, prestazio ekonomikoak eta beste edozein eskubide

ekonomiko, zerbitzuaren erabiltzaileak eskubide horiek sortu baditu, artikuluko honen 2. lerroaldean ezarritako prestazioak izan ezik.

b) Norberaren edo besteren kontura lan egiteagatik lortutako etekin osoak.

2) Honako prestazio hauek ez dira zenbatuko, errenta zehazteko:

a) Azaroaren 14ko 39/2006 Legeak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta emateari buruzkoak, ezarritako prestazio ekonomiko finalistak, hain zuzen ere: Familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa eta Zaintzaile ez-profesionalen laguntzeko prestazioa, arreta pertsonaleko prestazio ekonomikoa eta Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

b) Aurreko a) letran ezarritako prestazioen antzeko xede eta ezaugarriak dituzten honako prestazio hauek:

– Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, 194. artikuluan eta hurrengoetan araututako baliaezintasun handiaren osagarria.

– Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, 353 c) artikuluan ezarritako arri, desgaitasun maila ehuneko 75ekoa edo handiagoa daukan 18 urtetik gorako ardurapeko seme-alabaren ziozko esleipen ekonomikoaren osagarria.

– Kotizaziopekoa ez den baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzearen ziozkoa, Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, 364. artikuluan ezarritako arri jarraiki. Ekainaren 20ko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legeak aldatu zuen aurrekoa.

– Hirugarren pertsona baten laguntzaren ziozko sorospena, Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2 c) artikuluan arautzen duena, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena, legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

Egoitza zerbitzuetan edo zentroetan (edozein modalitatetakoetan) edo landa eremuko ostatu zerbitzuetan, ez dira aplikagarriak izango b) atalean ezarri diren salbuespenak. Kasu horietan, errenta zenbatze aldera, kontuan hartuko dira atal horretan aipatu diren prestazio guztien zenbaketa.

3) Errenta balioesteko, erreferentziatzen hartuko da Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa, 22.3 artikuluan aipatu diren zerga datuak oinarri hartuta. Diru sarreratzat zenbatuko dira honako kontzeptu hauen batuketak:

– lanaren etekin osoak;

– lanbide jardueren, enpresa jardueren, eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin osoak;

– egotzitako lanaren errenta salbuetsiak, guztira.

Artikulu honetako 2. lerroaldean azaldutako errentaren bat jasotzen dutenek prestazio ekonomiko horien frogagarria aurkeztu behar dute salbuetsitako zenbatekoa kalkulatzeko, zenbaki horretan ezarritako ondorioetarako.

4) Hileko errenta kalkulatzeko, urteko errenta zati hamabi egingo da.

5) Familia unitatearen errenta oinarritzen hartuta (urteko zenbatekoa nahiz hilekoa kontuan hartuta), erabiltzailearen banako edo buruko errenta kalkulatu ahal izango da honako eragiketa hau eginez: unitateko kideek lortutako sarrera guztien batura zati unitateko kideen kopurua.

24. artikulua. Ondarea

1. 22. artikuluan ezarritakoa betetzeko, ondareztat hartuko dira honako hauek:

– Famili unitatea osatzen duten pertsonak osorik edo zati batean jabetzan dituzten eduki ekonomikoko ondasunak eta eskubideak, eskuragarri dauden azken zerga datuak oinarritzat hartuta eta finantza aktiboen inguruan eskatzen den informazioaren bidez osatuta, 22. artikuluen 3. lerroaldeak ezarritakoa izan ezik.

– Ekitaldi batean edo ekitaldi gehiagotan sortu diren kalte ordain eta errenta kapitalizatuak.

– Erabiltzaileak, beraren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– edo foru dekretu honen 6.1 b) artikuluan ezarritako baldintzetan ordaindu behar duen pertsonak doan eskualdatu dituen ondasunen eta eskubideen balioa.

2. Ondoko hauek ez dira sartuko ondarean:

a) Ohiko etxebizitza, aparteko balioa eduki ezean (apartekotzat jotzen dira 250.000 eurotik gorako katastro balioak); etxebizitzaren balioa apartekoa bada, muga horren gaineko kopurua zenbatu behar da ondarean.

Ohiko etxebizitza ez da halakotzat hartuko, ohiko etxebizitza izandako horren jabea egoitza zentroan (edozein modalitate) edo landa eremuko ostatu zerbitzuan behin betiko hasten bada, familia unitateko kide batek edo batzuek han bizitzen jarraitu ezean (25. artikuluan zehaztu da familia unitatea).

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzat hartuko dira honako hauek: etxebizitza bera, garajea eta/edo trastelekua; bai eta, familia bakarreko landako edo hiriko etxebizitza bada, etxebizitzari atxikita dagoen lur zatia ere (bereizita egon ezean).

b) Ondasunak eta eskubideak kargatzen dituzten eta horien balioa gutxitzen duten kargak, ohiko etxebizitzat erabiltzen den higieztina eskuratzeko direnak izan ezik edo, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak onartu ondoren, higieztina zaharberritzeko erabiltzen direnak. Karga konputagarri horiek guztiek ezin izango dute inola ere balio garbi negatiborik sortu.

c) Norberaren zor eta obligazioak.

d) Azaroaren 18ko 41/2003 Legearekin bat etorriz (horren bidez, pertsona desgaituen ondarea babestu da, eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga araudia aldatu dira pertsona horien ondarea babesteko), babes berezia duen ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak, ondarearen jabeak berak zerbitzua jasotzen duenean izan ezik, pertsonaren beharrianak asetzen dituen heinean, aurrean aipatutako legeko 1.1 eta 5.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira.

e) Jarduera ekonomiko bati loturik dauden landako edo hiriko higieztinak, baldin eta horietatik ateratako etekinak errenta kalkulatzeko zenbatzen badira, 23. artikulua ezarritako baldintzetan.

3. Ondarearen hileko zenbatekoa kalkulatzeko helburuz, urteko zenbatekoa zati hamabi egin behar da.

4. Familia unitatearen ondarea, urtekoa eta hilekoa, oinarritzat hartuta (aurreko lerroaldeetan azaldu den bezala zenbatuta) pertsona erabiltzailearen banako edo buruko ondarea kalkulatu ahal izango da honako zatiketa hau eginez: unitatearen guztirako ondarea zati unitateko kideen kopurua.

25. artikulua. Familia unitatea

1. Kapitulu honetan ezarritakoa betetzeko, familia unitatean honako kide hauek hartuko dira kontuan:

a) Zerbitzuaren erabiltzailea adinez nagusia denean, zerbitzuaren onuradunaz gain, ondokoak joko dira familia unitateko kideetat:

– Onuradunaren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harremanen bitartez berarekin lotuta dagoen pertsona, legez aitortuta eta behar bezala egiaztatuta lehen xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan;

– Adingabeko seme-alabak;

– 18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira;

– Ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18-25 urte bitarteko seme-alabak;

Zaintza partekatuko kasuetan, seme-alabak zerbitzuaren eskatzailearen familia unitatean txertatuko dira.

a) Zerbitzuaren onuraduna adingabea bada, ondokoak joko dira familia unitateko kideetat:

– Zerbitzuaren onuraduna bera;

– Aita eta ama, edo adingabearen guraso ahala, tutoretza edo legezko zaintza daukana.

– Adingabeko neba-arrebak;

– 18 urtetik gorako neba-arrebak, ehuneko 65eko desgaitasuna edo desgaitasun handiagoa badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira;

– Ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18-25 urte bitarteko neba-arrebak.

b) Adingabea haurrentzako eta familiarentzako zerbitzuren baten onuraduna bada, familia unitateko kideetat joko dira ondokoak, betiere, eskaera egiten den datan, bizikidetzaren harremanik bada:

– Zerbitzuaren onuraduna bera;

– Aita eta ama, edo adingabearen guraso ahala, tutoretza edo legezko zaintza daukana.

– Adingabeko neba-arrebak;

– 18 urtetik gorako neba-arrebak, ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa badute;

– Ikasketa akademiko arautuetan ari diren 18-25 urte bitarteko neba-arrebak.

2. Edonola ere, pertsona bat familia unitate bakarreko kide baino ezin da izan.

26. artikulua. Ahalbide ekonomikoa balioesteko irizpideak

1. Ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, honako batura hau egin behar da: urteko errentari (famiariarena edo onuradunaren per capita errenta, kasuan kasukoa zerbitzuaren arabera) urteko ondarearen (famiariaren ondarea edo onuradunarena, kasuan kasukoa zerbitzuaren arabera) ehuneko jakin bat gehitu, hain zuzen ere, erabiltzailearen adinaren araberrako ehunekoak:

a) Erabiltzaileak 35 urte baino gutxiago badauzka, beraren ondarearen ehuneko 3.

b) Erabiltzailea 35-65 urte bitartekoa bada, beraren ondarearen ehuneko 6.

c) Erabiltzaileak 65 urte baino gutxiago badauzka, beraren ondarearen ehuneko 20. Nahiz eta 65 urte ez eduki, adinekoentzako zerbitzuetan edo zentroetan salbuespen moduan sartzen diren pertsoneri ere c) atalean ezarritakoa aplikatuko zaie.

2. Prezio publikoa familia unitatearen ahalbide ekonomikoaren arabera zehazten denean, honako irizpide zehatz hauek aplikatu beharko dira:

a) Pertsona bakarreko familia denean, ahalbide ekonomikoa 1. lerroaldean azaldutakoa zuzenean aplikatuz zehaztuko da.

b) Familia unitatea bi pertsonak osatzen badute, prezio publikoa kalkulatzeko (osoa edo hobariduna), 1. zenbakian azaldutakoaren arabera kalkulaturako hileko guztirako ahalbide ekonomikoaren ehuneko 80 hartuko da kontuan.

c) Familia unitatea bi pertsonak baino gehiagok osatzen badute, b) atalean azaldu den ehuneko 80ko kopuruari ehuneko 5 kenduko zaio gainerako pertsona bakoitzeko.

3. Zerbitzuen prezio publikoa banako ahalbide ekonomikoaren arabera zehazten denean, ahalbide hori honela kalkulatu da: familia unitatearen errenten eta ondarearen batura zati familiako kideen kopurua.

4. Hileko ahalbide ekonomikoa kalkulatzeko, urteko ahalbide ekonomikoa zati hamabi egingo da.

II. KAPITULUA. EBAZPENA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERATZEA

27. artikulua. Ebazpena

1. Foru dekretu honen bidez araututako prezio publikoak zehazteko eta aplikatzeko eskumena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari kudeatzaileak dauka. Horretarako, ebazpena emango du.

2. Honako alderdi hauek ebatziko dira ebazpen horretan:

a) Prezio publikoaren ordainketa geroratzea onartzen ez duten zerbitzuak baldin badira, ebazpenean jasoko da zerbitzuaren prezio publiko osoa eta, hala dagokionean, ahalbide ekonomikoa zein den, prezio publiko hobariduna.

b) Prezio publikoaren ordainketa geroratzea onartzen duten zerbitzuak baldin badira, honako hauek jasoko dira ebazpenean:

– Zerbitzu horri aplikagarri zaion prezio publiko osoa, adinekoentzako egoitza zentroak eta landa eremuko ostatu zerbitzuak direnean.

– Zerbitzu horri aplikagarri zaion prezio publiko osoa eta, hala dagokionean, ahalbide ekonomikoa zein den, prezio publiko hobariduna, adinekoentzako eguneko zentroak, eguneko arreta egoitza zentroetan eta bizitoki zerbitzuak direnean.

Behin ebazpena emanda, pertsonak zorra aitortzeko eskaera egiten badu, beste ebazpen bat emango da. Bertan geroratu ezin den prezioaren zatia ebatziko da, eta zati hori hilean ordaindu beharko da, foru dekretu honen 17. artikuluan ezarritako baldintzei jarraiki.

3. Aurreko lerroaldeetan ezarri diren baldintzekin bat etorrira, prezio publikoen zehaztapena eta aplikazioa egingo dira zerbitzuan sartzeko testuinguruan, eta horretarako indarreko foru araudian ezarritako epeetan (zehazki, Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak jasotzeko kasu bakoitzean aplikagarria den araudia).

28. artikulua. Prezio publikoak ofizioz berrikustea eta komunikatzeko eginbeharra

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak –zenbateko osoa, hobaria aplikatu ondoko zenbatekoa zein geroratutako kopurua–, banaka zein denak batera, ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo kudeatzaileak, eta interesdunak, beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak eskatuta ere berrikusi ahal izango dira. Berrikuspen baten ondorioz jakiten bada prezio publikoa ezartzerakoan kontuan hartutako ahalbide ekonomikoa aldatu dela, prezioaren zenbatekoa aldatu ahal izango da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari kudeatzailearen ebazpen bidez.

2. Aurrekoa betetzeko, foru dekretu honetan aipatu diren prezio publikoko edozein zerbitzu erabiltzen duen pertsonak –edo, bestela, beraren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak– aldaketen berri eman beharko du gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, honako hauetako edozein aldatzen den unetik zenbatuta: elkarbizitzaren egoera, egoera zibila, egoitza,

errenta edo ondarea (berarenak edo elkarbizitzarengatik zenbatu behar diren beste pertsona batzuenak) eta erabiltzaileari ezarri zaizkien prezio publikoetan eragina izan dezaketen edozein inguruabar. Jakinarazpen hori egiteko, datu osagarriak adierazteko ereduak erabili beharko dira. Eredu horiek badaude Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak jasotzeko kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko araudian.

3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak jakinez gero zerbitzu erabiltzaile baten ahalbide ekonomikoa aldatu dela, eta ez dela horren berri eman aurreko zenbakian ezarri den bezala, ezarritako prezio publikoa berrikusiko du, eta inguruabar berrietara doitu du. Bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, atzerako eraginez aplikatuko da, egoeran aldaketa hori gertatu zen egunetik aurrera eragina izateko, eta 6.1 artikulua arabera ordaintzeko betebeharra duen pertsonak, hartara, epe horretan pilatu diren ordainkizun atzeratuak ere ordaindu beharko ditu.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

4. Ahalbide ekonomikoaren aldaketaren berri Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eman bazaio, eta, erakunde horri lepora dakizkion arrazoiengatik, prezio publikoa bi hilabeteko epean berrikusi ez bada, honako bi egoera gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa baldin bada, ez da aplikatuko atzerako eraginez.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, Foru Erakundeak bidegabe ordaindu dituen zenbatekoak itzuliko ditu.

5. Pertsona bat Gizarte Ongizaterako Foru Zerbitzuak emandako zerbitzu batean hasi behar delako bere familia unitatea eratu behar baldin badu, jatorrizko familia unitatea osatzen zuten pertsonen ahalbide ekonomikoa berrikusi egingo da.

29. artikulua. Prezio publikoak eguneratzea

Foru dekretu honetan ezarritako prezio publikoak foru dekretu bidez eguneratu behar dira, beraz, hurrengo foru dekretu horretan ezarriko dira aplikatu beharreko hobariak eta beharrezko ahalbide ekonomikoa.

30. artikulua. Prezio publiko berriak

Lehendik dauden zerbitzuei dagozkien prezio publiko berriak –are zerbitzu osagarriei soilik dagozkienak– erabiltzaile guztiei aplikatuko zaizkie, baita zerbitzua prezio publikoa sortu baino lehen erabiltzen izan dutenei ere. Kasu horietan, dagokion foru dekretua indarrean sartzen den egunetik aurrera aplikatzen hasiko dira prezio publiko berriak.

III. KAPITULUA. PREZIO PUBLIKOENGATIK SORTUTAKO ZORRAK

31. artikulua. Prezio publikoengatik sortutako zorrak

1. Zerbitzu batek sortutako prezio publikoaren ordainagiria –prezio osoa, prezio hobariduna edo, zerbitzuaren arabera, geroratu ezin den prezio publikoaren zatia– bankuak itzultzen badu, zordunari ordaintzeko eskatuko zaio, eta egutegiko 30 eguneko epea emango zaio zenbatekoa ordaintzeko edo ordainketa zatitzeko eskaera egiteko.

2. Aurreko atalean aipatzen den epean eskatutako dirua ordaindu ezean, edo ordainketa zatitzeko eskatu ezean, 1. zenbakian ezarritako prezio publikoa premiamenduko administrazio prozedura bidez eskatuko da, zuzenbide publikoko kredituak biltzeari buruz indarrean dagoen foru araudian xedatu den bezala.

3. Prezio publikoa behin eta berriro ez ordaintzeak ekar dezake zerbitzua jasotzeko eskubi-dea galtzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak jasotzeko kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko araudian ezarritako baldintzetan.

4. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak jasotzeko kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko araudian ezarritakoarekin bat etorriz, zerbitzu bat eskuratzeko prozesuan, foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera zerbitzua ordaindu behar duen pertsonak erakunde horrekin zorrak dituela egiaztatzen bada, honela jokatu da:

a) Zorra Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen prestazioa bidegabe jasotzeagatik edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak okerreko zenbatekoa ordaintzeagatik sortu bada, prestazio ekonomikoei buruzko foru araudian horrelako kopuruak itzultzeko ezarritako prozedura jarriko da abian.

b) Zorra ordainketa geroratzea onartzen ez dituzten zerbitzuen prezio publikoak ez ordaintzeagatik sortu bada, eskatzaileari eskatuko zaio egutegiko 30 eguneko epean, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita, zordundutako zenbatekoak itzultzeko, edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari ordainketa zatitzeko eskaera egiteko, artikuluan honen 1. eta 2. zenbakietan ezarritako baldintzetan.

c) Ordainketa geroratzea onartzen duen zerbitzu batean zorra sortu bada, hauxe eskatuko zaio eskatzaileari:

– Sortutako zorra, geroratu daitekeen prezio publikoaren zatiari dagokiona, zerbitzuagatik ordaindu beharreko prezio publikoaren zati bat geroratuta sortzen den zorrean metatzeko.

– Hala dagokionean, sortutako zorra, geroratu ezin den prezio publikoaren zatiari dagokiona, aurreko atalean aipatutako zor geroratuan metatzeko.

Honako c) atal honetan azaldu diren kasuetan, zorra aitortzeko agirian jaso beharko da zorraren metaketa hori. Agiri hori helmuga den zerbitzuan hasteko bete eta aurkeztu beharko da, foru dekretu honen 18. artikuluan ezarritako baldintzetan. Halaber, 15. artikuluan xedatutakoa, bermeak eskatzeari buruzkoa, aplikagarria izango da.

Laugarren zenbaki honetan ezarri diren aukeren artean, kasua zein den, pertsonak zorra ordaintzeko izapideak bide egokiaz egiten ez baditu, hurrengo zerbitzuan hasteko eskaeran atzera egin duela joko da, eta beste izapiderik egin gabe artxibatuko da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari kudeatzaileak horretarako ebazpena eman ondoren, balorazio ekonomikoa egiteko eskumena duen saileko zuzendariordetzak proposatuta. Edonola ere, pertsonak zorra ordaindu ahal izango du geroago, bai eta zerbitzuan hasteko beste prozedura bat abiarazi ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Honako foru dekretu hau indarrean hasten denean, indargabeturik geratuko dira araudi honetan xedaturikoaren aurka egiten duten maila bereko edo maila apalagoko xedapen guztiak, bereziki, Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 26ko 4/2016 Foru Dekretua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzu publikoak arautzen dituena.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezkontzaren antzeko harremanaren bitarteko lotura.

1. Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean zehaztu diren bikoteak ezkontzaren antzeko harremanaren bitartez lotuta daudela joko da foru dekretu honen ondorioetarako. Lege hori Euskal Autonomia dago indarrean.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria, edo, hala dagokionean, udal erregistro egokiaren ziurtagiria aurkeztuta ziurtatuko da lotura hori, lege horren 3. artikuluan araututako baldintzetan.

3. Lehen xedapen gehigarri honetan jaso den definizioa honako hauei ere aplikatu ahal zaiela joko da: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak jasotzeko foru araudiari, mendekotasun egoera onartzeko eta beregain izaten laguntzen duten prestazio ekonomikoei buruzko araudiari eta Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen gizarte zerbitzuen arloan aplikagarria den edozein foru xedapeni, lotura hori aipatzeko erabiltzen den terminoa edozein izanda ere (ezkontzaren antzeko harremanaren bitartezko lotura, ezkontzaren antzeko afektibitate harremana, izatezko bikotea edo beste batzuk).

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Aparteko egoerak.

1. Zerbitzuen erabiltzaileen egoera sozioekonomikoa berezia izan litekeela jakinik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, zuzendari kudeatzaileak proposatuta, bidezko arloko zuzendariordetza teknikoak zerbitzuaren ezaugarrien arabera arrazoitutako txostena eman ondoren, eta Ekonomia arloko zuzendariordetzak ere txostena eman ondoren, hobari partzialak edo osoak ezarri ahal izango ditu 8.1 artikulua arabera hobaririk jaso ezin duten zerbitzuetan. Horrez gain, foru dekretu honetan ezarritako zenbateko hobaridunak, salbuetsitako kopuruak eta erabiltzaileen erabilera askeko zenbatekoak handitu ahal izango ditu, betiere, ordainketaren zati bat geroratzea onartzen duten zerbitzuak izan ezean.

2. Aparteko kasuetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, Ezinduen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak arrazoitutako txostena eman ondoren, ezinduentzako eguneko zentroetako arretaren ordutegia luzatu ahal izango du. Hori eginez gero, prezioa gehikuntzaren proportzioan igoko da.

3. Bederatzigarren artikuluan aipatutako arrazoiez bestelako arrazoiengatik zerbitzuen erabilera eteten bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, Zuzendaritzak proposatuta, bidezko arloko zuzendariordetza teknikoak arrazoitutako txostena eman ondoren, lekua erreserbatzeko prezio publikoaren salbuetsitako kopuruak onartu ahal izango ditu.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Udal eskumeneko gizarte zerbitzuetan ezarritako prezio publikoak indarrean egongo dira Arabako Foru Aldundiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez ematen dituen artean, ondoko arrazoiak direla kausa ematen dituenean:

a) Gizarte zerbitzuei behin-behinean heltzea, 2018ko abenduaren 21eko 765/2018 Erabakiak 2020ko ekainaren 26ra arte luzatu zuen Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia dela bide edo ondoko luzapenak direla bide.

b) 2016ko abenduaren 1ean, Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean sinatutako lankidetzako hitzarmen esparrua, gizarte zerbitzuen arloko eskumenak berrantolatzeke helburuz, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, eta abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, diotenari jarraiki. Arestian esandako hitzarmena 2017ko abenduaren 19an aldatu zen eta 2020ko abenduaren 31ra arteko indarraldia dauka.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

2019. urtean, atseden zerbitzuen esparruaren barruan, GOFeren ebazpen bidez emandako lehen 15 egunak, honako foru dekretu hau indarren hasi eta gero gozatzekoak, honako dekretu honetan ezarritako prezio publikoaren salbuespena baliatu ahal izango dute, nahiz eta data hori baino lehen beste atseden egun batzuk izan; nolana ere den, inola ere ezin izango da Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuaren 45.4.a artikulua ezarritako 45 atseden egunen kopurua gainditu.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetatik lehenengoa. Araubide osagarria.

1. Honako foru dekretu honetan berariaz xedatzen ez den guztiari dagokionez, ordezeko aplikazioa izango dute Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuei heltzeko foru araudietan jasotzen diren xedapenek, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako xedapenek eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, ezarritako xedapenek, bai eta arloan aplikagarriak diren eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ere.

2. Araudi hau honen menpean dago, oso-osorik: 48/1994 Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Arabako Lurralde Historikoaren Dirubilketarako Araudi Orokorra onartu duena.

3. Era berean, foru dekretu honetan ordainketaren gerorapenaz berariaz ezarrita ez dagoen guztian, zergaz kanpoko zorren ordainketa geroratzeko eta zatikatzeko prozedura arautzeko Arabako Foru Aldundiak ezarritako edo ezartzen duen arautegia aplikatuko da gehigarri gisa.

4. Oro har, berariazko arauari buruz egiten diren aipamenak, Estatukoak, autonomia erkidegokoak edo foralak izanda ere, une bakoitzean arlo horiekin lotuta indarrean dauden araudien aipamenak izango dira.

Azken xedapenetatik bigarrena. Arauen garapena.

Gizarte Politiken Saileko buruari ahalmena eman zaio arautegi hau garatzeko, betearazteko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Indarrean jartzea.

1. Honako foru dekretu hau indarrean hasiko da ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo, 9. artikulua izan ezik. Azken horrek, 2019ko uztailaren 1etik aurrera izango du indarra.

2. Honako foru dekretu hau Gizarte Ongizaterako Foru erakundeak ematen dituen zerbitzu guztiei aplikatuko zaie, indarrean hasten den datatik aurrera, zerbitzuen prestazioa noiz hasi den gorabehera.

Azken xedapenetatik laugarrena. Argitalpena.

Araudi berri hau ALHAOn argitaratzeko agindu da.

Gasteiz, 2019ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen foru diputatua

MARÍA ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Gizarte Politiken foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

I. ERANSKINA

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK EMATEN DITUEN ZERBITZUENGATIK
ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOEN ZENBATEKOAK

Eranskin honetan bildu dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak ordaindu behar dituztenek erakunde horri 2019. urtean eta, beste prezio batzuk onartu arte, urte horren ondoren ere ordaindu beharko dizkioten prezio publikoak.

a) ZERBITZU OROKORRAK	
1. tarifa. Etxez etxeko laguntza zerbitzua	6,12 €/ordu
2. tarifa. Egoitza unitate soziosanitarioa	37,44 €/egun

b) ADINEKOENTZAKO ETA DESGAITASUN DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZU ERKIDEAK	
3. tarifa. Norberaren autonomia sustatzeko zerbitzuak: Laguntza produktuak eskuetatatzeko zerbitzua	9,69 €/hil

c) ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK	
4. tarifa. Landa eremuko ostatu zerbitzua	595,83 €/hil
5. tarifa. Egoitza zentroak:	
5.1 tarifa. Orokorra.	1.138,93 €/hil
5.2 tarifa. Berezia.	1.428,00 €/hil
Tarifa hori aplikatuko da hileko per capita ahalbide ekonomikoa 2.800 eurotik gorakoa denean.	
6. tarifa. Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan	503,32 €/hil
6.1 tarifa. Eguneko zentroa eta garraioa	6. tarifaren % 100
6.2 tarifa. Eguneko zentroa, garraiorik gabe	6. tarifaren % 80
6.3 tarifa. Asteburua emateko eguneko zentroa eta garraioa	6. tarifaren % 40
6.4 tarifa. Asteburua emateko eguneko zentroa, garraiorik gabe	6. tarifaren % 32
6.5 tarifa. Asteburua emateko (egun bakarra) eguneko zentroa eta garraioa	6. tarifaren % 20
6.6 tarifa. Asteburua emateko (egun bakarra) eguneko zentroa, garraiorik gabe	6. tarifaren % 16
6.7 tarifa. Landa eremuko eguneko zerbitzua egoitza zentro batean eta garraioa	6. tarifaren % 70
6.8 tarifa. Landa eremuko eguneko zerbitzua egoitza zentro batean, garraiorik gabe	6. tarifaren % 56
Erabiltzaileak zerbitzua garraioarekin edo garraiorik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari.	
7. tarifa. Eguneko laguntza landa eremuko ostatu zerbitzu batean	6. tarifaren % 40
8. tarifa. Eguneko arretako landa eremuko zentroak	
8.1 tarifa. Arreta pertsonala emateko zerbitzua	119,73 €/hil
Zerbitzu osagarriak:	
8.2 tarifa. Otordu zerbitzua	81,60 €/hil
8.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua	7,54 €/saio
8.4 tarifa. Bainu geriatrikoa emateko zerbitzua	4,68 €/saio
8.1 edo 8.2 tarifa aplikatzen zaien zerbitzuak asteko egun guztietan erabiltzen ez badira, prezioa erabileraren proportziozkoa izango da.	
Irizpide bera ezarriko zaie zentro horietako atseden zerbitzuei.	
9. tarifa. Atseden zerbitzuak	
9.1 tarifa. Atseden zerbitzua egoitza zentroetan	37,44 €/egun
9.2 tarifa. Atseden zerbitzua eguneko zentroan	24,35 €/egun
9.3 tarifa. Atseden zerbitzua eguneko zerbitzua eskaintzen duten egoitza zentro batean	17,11 €/egun
10. tarifa. Atseden zerbitzua landa eremuko ostatu zerbitzuan	19,58 €/egun
11. tarifa. Atseden zerbitzua eguneko laguntza eskaintzen duen landa eremuko ostatu zerbitzuan	9,78 €/egun
12. tarifa. Atseden zerbitzua eguneko laguntza eskaintzen duen landa eremuko zentroan (arreta pertsonala)	5,81 €/egun
12.1 tarifa. Zerbitzu osagarriak	8. tarifaren arabera

d) DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK	
13. tarifa. Bizitza beregainari laguntzeko zerbitzua	22,52 €/hil
14. tarifa. Egoitza zentroak:	1.138,93 €/hil
14.1 tarifa. Egoitza	14. tarifaren % 100

14.2 tarifa. Laguntzadun etxebizitza: Asteko arreta osoa eta gaueko gainbegiraketa.	14. tarifaren % 90
14.3 tarifa. Aldizkako laguntza duen etxebizitza	14. tarifaren % 35
15. tarifa. Adimen urritasuna edo garapen nahasteak dituzten pertsonentzako eguneko zerbitua edo zentroa:	190,78 €/hil
15.1 tarifa. Adimen urritasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa	15. tarifaren % 100
15.2 tarifa. Garapen nahasteak dituzten pertsonentzako eguneko zentroa	15. tarifaren % 100
16. tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa	190,78 €/hil
16.1 tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa, lansai osoan	16. tarifaren % 100
16.2 tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa, lansai erdian (otordurik ez)	16. tarifaren % 35
17. tarifa. Autonomia pertsonala sustatzeko zentroa muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonentzat	16. tarifaren % 57,23
17.1 tarifa. Arreta pertsonalizatua:	
17.1.1 tarifa. Arreta pertsonala, astean 29 eta 35 ordu artekoa	16. tarifaren % 57,23
17.1.2 tarifa. Arreta pertsonala, astean 22 eta 28 ordu artekoa	16. tarifaren % 45,78
17.1.3 tarifa. Arreta pertsonala, astean 15 eta 21 ordu artekoa	16. tarifaren % 34,34
17.1.4 tarifa. Arreta pertsonala, astean 8 eta 14 ordu artekoa	16. tarifaren % 22,89
17.1.5 tarifa. Arreta pertsonala, astean 7 ordu artekoa	16. tarifaren % 11,45
17.2 tarifa. Zerbitzu osagarria: otordu zerbitzua.	81,60 €/hil
17.2.1 tarifa. Otordu zerbitzua: 5 egun/aste	17.2. tarifaren % 100
17.2.2 tarifa. Otordu zerbitzua: 4 egun/aste	17.2. tarifaren % 80
17.2.3 tarifa. Otordu zerbitzua: 3 egun/aste	17.2. tarifaren % 60
17.2.4 tarifa. Otordu zerbitzua: 2 egun/aste	17.2. tarifaren % 40
17.2.5 tarifa. Otordu zerbitzua: 1 egun/aste	17.2. tarifaren % 20
Erabiltzaileak zerbitzua otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari.	
18. tarifa. Eguneko zerbitzua egoitza zentroetan	133,55 €/hil
19. tarifa. Otordu zerbitzu osagarria okupazio zerbitzuan edo zentroan edo eguneko zentroan	81,60 €/hil
Erabiltzaileak okupazio zerbitzua edo zentroa otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari.	
20. tarifa. Atsedeen zerbitzua:	
20.1 tarifa. Atsedeen zerbitzua egoitzan	37,44 €/egun
20.2 tarifa. Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan Asteko arreta osoa eta gaueko gainbegiraketa	33,70 €/egun
20.3 tarifa. Atsedeen zerbitzua aldizkako zerbitzua eskaintzen duen etxebizitzan	26,21 €/egun
20.4 tarifa. Atsedena emateko zerbitzua eguneko zentroan.	9,23 €/egun
20.5 tarifa. Atsedeen zerbitzua eguneko zerbitzuan	6,46 €/egun
20.6 tarifa. Beste atsedeen zerbitzu batzuk	25 €/gau
21. tarifa. Desgaitasuna duten haur eta gazteentzako Aisialdi programa	122 €/aste

e) BURUKO ERITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK		
22. tarifa. Bizitza beregainari laguntzeko zerbitzua		22,52 €/hil
23. tarifa. Egoitza zentroak		1.138,93 €/hil
23.1. tarifa. Egoitza	23. tarifaren % 100	1.138,93 €/hil
23.2. tarifa. Laguntzadun etxebizitza: Gizarte eta hezkuntzako ostatu zerbitzua, etengabeko arretaz		23. tarifaren % 70
23.3 tarifa. Laguntzadun etxebizitza: Gizarte eta hezkuntzako ostatu zerbitzua, etengabeko arretarik gabe		23. tarifaren % 30
24. tarifa. Eguneko zentroa		190,78 €/hil
24.1 tarifa. Eguneko zentroa, lansai osoan		24. tarifaren % 100
24.2 tarifa. Eguneko zentroa, lansai erdian (otordurik gabe)		24. tarifaren % 35
25. tarifa. Atsedeen zerbitzua:		
25.1 tarifa. Atsedeen zerbitzua egoitzan		37,44 €/egun
25.2 tarifa. Atsedeen zerbitzua, laguntzadun etxebizitzan: gizarte hezkuntzako ostatu zerbitzua eta etengabeko arreta		26,21 €/egun
25.3 tarifa. Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: gizarte hezkuntzako ostatu zerbitzua, etengabeko arretarik gabe		11,23 €/egun
25.4 tarifa. Buruko eritasuna duten pertsonentzako atsedeen zerbitzua eguneko zentroan		9,23 €/egun
25.5 tarifa. Beste atsedeen zerbitzu batzuk		25 €/gau

26. tarifa. Otordu zerbitzu osagarria eguneko zentroan:		81,60 €/hil
Erabiltzaileak eguneko zentroaren zerbitzua otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari.		
27. tarifa. Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko zerbitzua eta esku hartze psikosozialeko zerbitzua buruko eritasuna duten pertsonentzat eta/edo haien senitartekoentzat		22,52 €/hil

f) HAURRENTZAKO, ETA FAMILIENTZAKO ZERBITZUAK		
28. tarifa. Adingabeentzako egoitza zentroak (norberaren borondatezko zaintzagatik soilik ordaindu beharko da prezio publikoa)		341,68 €/hil
28.1 tarifa. Egoitza zentroa		28. tarifaren % 100
28.2 tarifa. Harrera etxebizitza		28. tarifaren % 100
28.3 tarifa. Emantzipaziorako prestatzeko zentroa		28. tarifaren % 80
28.4 tarifa. Emantzipaziorako etxebizitza		28. tarifaren % 50
29. tarifa. Haurrentzako eguneko zentroa (norberaren borondatezko zaintzagatik soilik ordaindu beharko da prezio publikoa)		22,52 €/hil

h) ERABILTZAILE IRAUNKOR EZ DIREN PERTSONENTZAKO ZERBITZU OSAGARRIAK		
29. tarifa. Erabiltzaile iraunkor ez diren pertsonentzako zerbitzu osagarriak		
29.1 tarifa. Otordu zerbitzua egoitza zentroetan adinekoentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat, landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuan eta okupazio zentroetan desgaitasuna duten pertsonentzat		5,50 €/otordu
29.2 tarifa. Baina geriatrikoa egoitza zentroetan adinekoentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan		4,68 €/saio
29.3 tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua egoitza zentroetan adinekoentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan		7,54 €/saio
30. tarifa. Zerbitzu nagusien erabiltzaile iraunkorren senitartekoentzako zerbitzu osagarriak. Honako hauek eskaintzen dira: Otordu zerbitzua egoitza zentroetan adinekoentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan		5,50 €/ale

II. ERANSKINA AHALBIDE EKONOMIKOA NAHIKOA DELA ZEHAZTEA

I. eranskinean ageri diren prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikotzat joko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

1. Hobariak zehazteko 8.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prezio publikoa osorik ordaintzeko behar besteko ahalbide ekonomikoa dagoela joko da, ahalbide ekonomiko hori III. tituluaren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatuta, a) eta b) ataletan adierazitako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa denean:

a) Per capita edo banakako hileko ahalbide ekonomikoa kontuan hartzen denean aplikagarriak diren mugak:

Zerbitzu Orokorrak	Egoitza unitate soziosanitarioa	1.291,81 €/hil
Adinekoentzako zerbitzuak	Atsedeen zerbitzua egoitzan	1.291,81 €/hil
	Atsedeen zerbitzua landa eremuan ostaturik ematen duten zerbitzuetan	825,15 €/hil

		12.1.a) art.	12.1.b) art.
Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak	Egoitza	1.368,25 €/hil	1.597,57 €/hil
	Laguntzadun etxebizitza: Asteko arreta osoa eta gaueko gainbegiraketa	1.254,36 €/hil	1.483,68 €/hil
	Laguntzadun etxebizitza: Asteko arreta osoa, gaueko gainbegiraketarik gabe	1.026,57 €/hil	1.255,89 €/hil
	Laguntzadun etxebizitza: Asteko arreta astelehenetik ostiralera eta gaueko gainbegiraketa	969,62 €/hil	1.198,94 €/hil
	Laguntzadun etxebizitza: Asteko arreta astelehenetik ostiralera,gaueko gainbegiraketarik gabe	741,84 €/hil	971,16 €/hil
	Aldizkako laguntza duen etxebizitza	627,95 €/hil	857,27 €/hil
	Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan desgaitasuna duten pertsonentzat	1.368,25 €/hil	1.597,57 €/hil
	Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: Asteko arreta osoa eta gaueko gainbegiraketa	1.254,36 €/hil	1.483,68 €/hil
	Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: Asteko arreta osoa, gaueko gainbegiraketarik gabe	1.026,57 €/hil	1.255,89 €/hil
	Buruko eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuak	Egoitza	1.368,25 €/hil
Laguntzadun etxebizitza: Gizarte eta hezkuntzako ostatu zerbitzua, etengabeko arretaz		1.026,57 €/hil	1.255,89 €/hil
Laguntzadun etxebizitza: Gizarte eta hezkuntzako ostatu zerbitzua, etengabeko arretarik gabe		571,00 €/hil	800,32 €/hil
Atsedeen zerbitzua egoitzetan, buruko eritasuna duten pertsonentzat		1.368,25 €/hil	1.597,57 €/hil
Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: Gizarte eta hezkuntzako ostatu zerbitzua, etengabeko arretaz		1.026,57 €/hil	1.255,89 €/hil
Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: Gizarte eta hezkuntzako ostatu zerbitzua, etengabeko arretarik gabe		571,00 €/hil	800,32 €/hil

b) Familiako hileko ahalbide ekonomikoa kontuan hartzen denean aplikagarriak diren mugak:

Zerbitzu Orokorrak	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	1.500,00 €/hil
Adinekoentzako zerbitzuak	Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan	1.500,00 €/hil
	Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa landa eremuko ostatu zerbitzuetan	1.500,00 €/hil
	Asteburua emateko eguneko zentroa	1.500,00 €/hil
	Eguneko laguntzako landa eremuko zentroa	1.500,00 €/hil
Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak	Eguneko zerbitzua edo zentroa adimen edo garapen urritasuna duten pertsonentzat	1.500,00 €/hil
	Eguneko zerbitzua edo zentroa eta/edo norberaren autonomia sustatzeko zentroa muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonentzat	1.500,00 €/hil
	Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan	1.500,00 €/hil
Buruko eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuak	Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan	1.500,00 €/hil
Haurrentzako eta familientzako zerbitzuak		Zerga oinarria
	Egoitza zentroa	18.000 €/urte
	Harrera etxebizitza	18.000 €/urte
	Emantzipaziorako prestatzeko zentroa	14.400 €/urte
	Emantzipaziorako etxebizitza	7.200 €/urte
	Eguneko zentroa haurrentzat	7.200 €/urte

Era berean, aurreko a) eta b) letretan kontuan hartu diren kasuetan, behar besteko ahalbide ekonomikoa dagoela joko da pertsonaren ondare zenbakarria 50.000 eurokoa edo hori baino handiagoa denean, nahiz eta III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturako ahalbide ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

2. Adinekoentzako egoitza zerbitzuetan eta landa eremuko adinekoentzako osatu zerbitzuetan ordainketa geroratzeari buruz 16.1 artikuluan ezarri diren ondorioetarako, behar besteko ahalbide ekonomikoa dagoela joko da III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturako ahalbide ekonomikoa honako muga hauen bestekoa edo hauek baino handiagoa denean:

Adinekoentzako zerbitzuak	Landa eremuan ostatua hartzeko zerbitzua	825,15 €/hil
	Egoitza zentroa: 5.1 tarifa arruntaren kasuan	1.291,81 €/hil
	Egoitza zentroa: 5.2 tarifa bereziaren kasuan	1.580,88 €/hil

3. Era berean, ahalbide ekonomiko nahikoa dagoela joko da pertsonak diru erraz bihur daitekeen ondarea daukanean, ondoko zenbatekoetatik gorakoa:

a) 3.000 eurokoa, landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzu adinekoentzako egoitza zentroei dagokienez

b) 15.000 eurokoa, adinekoentzako eguneko zerbitzu eta eguneko zentroei dagokienez.

III. ERANSKINA

I. ERANSKINEAN EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOAK INDARREAN DAUDEN ALDIAN APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

I. eranskinean ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalbide ekonomikoa ez duten pertsonen honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, foru dekretu honetako 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira:

1. ZERBITZU OROKORREN ORDAINKETAN APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Zerbitzu horren banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalbide ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALBIDE EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0,00	0	500,00	0,20
600,00	500,00	1,12	100,00	0,30
700,00	600,00	1,42	100,00	0,40
800,00	700,00	1,82	100,00	0,50
900,00	800,00	2,32	100,00	0,60
1.000,00	900,00	2,92	100,00	0,75
1.100,00	1.000,00	3,67	100,00	0,90
1.200,00	1.100,00	4,57	100,00	0,55
1.300,00	1.200,00	5,12	100,00	0,40
1.400,00	1.300,00	5,52	100,00	0,30
1.500,00	1.400,00	5,82	100,00	0,30
1.500,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		6,12 euro/ordu

Ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, lehenbizi hileko orduen kopurua zehaztu behar da, eta horretarako, asteko orduen batura bider 4,3 egin behar da.

- Egoitza unitate soziosanitarioa

Erabiltzaileak prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalbide ekonomiko nahikorik ez badauka, Egoitza unitate soziosanitarioaren zerbitzuaren ziozko banako prezioa erabiltzaile horren banako eta hileko ahalbide ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da, baina, nolana ere, 12.3 artikulua ezarritako erabilera libreko zenbateko egokiari eutsi behar zaio. Zenbateko hori gainerakoan bermatuko da, ondare konputagarriaren kontura.

Erabilera libreko zenbateko egokiari eusteko ondare konputagarri nahikorik izan ezean, banako prezioa gutxitu egingo da 12. artikulua kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoa bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, erabilera libreko zenbatekoa (12.3 artikuluan zehaztuta) ehuneko 50 handitu beharko da.

2. ADINEKOENTZAKO ZERBITZUEI APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

- Eguneko arreta eskaintzen duten landa eremuko zentroetako zerbitzuak

Eguneko arreta eskaintzen duten landa eremuko zentroetan, arreta pertsonaleko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko banakako prezioa kalkulatzeko, honako taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalbide ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALBIDE EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0	0	500,00	3,0
600,00	500,00	17,35	100,00	5,0
700,00	600,00	22,35	100,00	7,0
800,00	700,00	29,35	100,00	10,0
900,00	800,00	39,35	100,00	10,0
1.000,00	900,00	49,35	100,00	11,0
1.100,00	1.000,00	60,35	100,00	11,0
1.200,00	1.100,00	71,35	100,00	12,0
1.300,00	1.200,00	83,35	100,00	12,0
1.400,00	1.300,00	95,35	100,00	12,0
1.500,00	1.400,00	107,35	100,00	12,38
1.500,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		119,73 euro

- Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan eta asteburua emateko eguneko zentroa

Zerbitzu horiek jasotzeagatik ordaindu beharreko banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taulako hileko kopuruak aplikatu behar dira, erabiltzailearen familiaren hileko errenta oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALBIDE EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0	0	500,00	22,57
600,00	500,00	112,87	100,00	32,0
700,00	600,00	144,87	100,00	35,0
800,00	700,00	179,87	100,00	38,0
900,00	800,00	217,87	100,00	42,0
1.000,00	900,00	259,87	100,00	45,0
1.100,00	1.000,00	304,87	100,00	48,0

FAMILIAREN AHALBIDE EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
1.200,00	1.100,00	352,87	100,00	51,0
1.300,00	1.200,00	403,87	100,00	59,51
1.400,00	1.300,00	463,87	100,00	20,0
1.500,00	1.400,00	483,87	100,00	20,0
1.500,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		503,32 euro

Zerbitzu bakoitzaren zioz ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, foru dekretu honen I. eranskineko 6.1etik 6.8ra arteko tarifa egokiak aplikatu behar dira aurreko taulan ageri diren zenbatekoen gainean, modalitatea zein den.

